

txintxarri

2021-06-25 OSTIRALA / 1549. ZENBAKIA  
LASARTE-ORIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

Beste urtebetez, zain




**Ges**  
aseguruak



Gora Lasarte-Orial

*Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoa*

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!





*Ondo pasa egun hauetan  
eta zaindu zaitez!*



## *Kalitatea dastatu*

### *Gure ogiak:*

*Cristal  
Molde Cristal  
Parisien  
Txabola  
Mendiko  
Txapeldun  
Leña lighth  
Espelta  
Vital  
Artoa  
Salud  
Artoa zerealekin  
Aleman  
Molino  
Verde  
Espelta zerealekin  
Ogicol*

*Kurkuma, intxaurreak eta mahaspasak*



*Bila zabiltzan hori... ziur hemen aurkituko duzula!*

*Pablo Mutiozabal 3 • Tel: 943 36 41 21 • 20160 LASARTE-ORIA*



## Esperotakoa baino zenbaki bereziagoa

Lasarte-Oriako Udalarekin 41 zenbaki ditu hitzartuta TXINTXARRI aldizkariak 2020-2021 ikasturterako: *arruntak* dira 38, eta *bereziak* beste hiruak. *Arruntak* eta *bereziak* terminoak arrazoi honengatik erabiltzen ditugu: hamasei orrikoak dira lehenengoak, normalak, ohikoak; besteak, aldiz, 32koak izaten dira, eta garai espezialetan egiten ditugu: adibidez, San Pedro Jaietan eta Eguberrietan.

Gure zoritxarrerako, herriko jaien bueltan publikatzen ditugun agerkari *berezi* horiek bigarren esanahi bat hartu dute 2020an eta 2021ean: *bereziak*, 32 orrikoak direlako, eta *bereziak*, edo ezohikoak nahi bada, iazko zein aurtengo San Pedro Jaiak horrelakoak izan eta izango direlako, COVID-19ak eragindako krisia tarteko. Tamalez, ohi baino programa murriztagoak irakurriko dituzue datozen orrialdeetan: Lasarte-Oriako Udalak ekainerako eta uztaileko kultur ekitaldi ugari antolatatu

ditu "herria dinamizatzeko" asmoz, baina ez du festetako programa ofizialik prestatu; herriko jai alternatiboak antolatzen dituen eragileak, Sorgin Jaiak, "Lasarte-Oria koloreztatzeko" egitasmoak iragarri ditu, baina, halabeharrez, egitaraua murriztu behar izan du; eta azkenik, Ttakun Kultur Elkarteak hauspotuko du euskal kultura egun hauetan, baina ez nahi bezainbeste.

Testuinguru horretan, TXINTXARRI aldizkari lantaldeak jaien aurreko zenbaki berezia argitaratzeko apustua egin du aurten ere, esku artean dituzuen 32 orriak betetzea erraza izan ez den arren. Lantaldekoentzat, hau izan da unerik gogorrenetako bat: azalean egin dugun argazki-bilduma prestatzeko arxiboa arakatzea, urtez urte, eta San Pedro Jaietan zein Sorgin Jaietan bizitakoa gogoratu ahala, festa gogoak baretzea. Kontraesankorra dirudien arren, irakurle, gure asmoa ez da zuregan

sentsazio hori bera piztea, "normalak" izan ziren festa horietako zenbait une erakustea baizik; bi ezohiko urte hauetan bizitakoak ez dezan aurreko guztia lausotu. Beste urtebete itxaron beharko dugu gutxienez; espero dezagun azkena izatea, eta 2022an argitaratuko dugun aldizkari *bereziak* bigarren esanahi hori galtzea.

Ez genuke hitzaurre hau amaitu nahi egun hauetarako ekintzak antolatu dituzten eragile eta erakundeen ahalegina goraiatu gabe, haiei esker aterako baikara kalera egun hauetan, kamerak eskuetan, 2021eko ezohiko ekain amaieran gertatzen dena kontatzera. Horrekin batera, lantaldeko kideok eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu orri hauei kolore gehiago eman dieten iragarkiak kontratatu dituzuen bezeroi; egoera berezi honetan argitaratutako aldizkari honen berezitasuna mantentzen lagundu diguzue, zentzu onean. Ez da gutxi.

# zitek zientzi eskola

## ZORIONAK! Helburua lortu dugu!! Gozatu uda eta sanpedroak

2021  
UDAKO  
ikastaroak

Uztailaren 1etik aurrera

2021-2022  
IKASTURTEA

Irailaren 6tik aurrera

Hobetzen lagunduko zaitugu ZITEK-en

Laguntza eskola eta ikasketa teknikak  
LH-DBH-Batxillergoa-zikloak  
Zientziak-Letrak-hizkuntzak

Goikale Kalea 12, behea. Lasarte-Oria. 943 363106 [www.zitek-akademia.com](http://www.zitek-akademia.com)

# Egoerara moldatutako, adin guztietarako ekintzak

Egun berezi hauetan, Ttakun Kultur Elkarteak, udalaren laguntzaz, haur tailerrak, tupper jana eta 'Gure Patxintxiak' sariak antolatuko ditu. Uztailaren 10ean ere ekintza bereziak izango dira, sagardo dastaketa eta kantu-dantza jira

## Txintxarri

Nahiz eta San Pedro Jairik ez egon, egun berezi hauetan eta hurrengo asteetan Ttakun Kultur Elkarteak hainbat ekimen antolatu ditu Lasarte-Oriako herritarrei zuzenduta.

Lan eta lan aritu dira asteen herriko haur eta gazteak eurentzako antolatutako tailerretan (ikus ondoko orrialdea).

Eta, ekainaren 30ean, 11 eta 14 urte arteko kuadrillei zuzendutako tupper jana ere izango da.

Bi kokalekutan banatuko da ekimena: LH5-6 mailakoak, Landaberri-Garaikoetxea ikastolan eta DBH1-2 mailakoak, berriz, Oriarte BHI Landaberri eraikineko patioan.

14:00ak aldera hasiko da bazkaria eta antolatzaileek zehaztu dutenez, parte-hartzaile bakoitzak bere janaria eraman beharko du etxetik. Gainera, seiko taldeetan banatuko dira gazteak.



San Pedro egunean ohikoa den sagardo dastaketa uztailaren 10ean egingo da. TXINTXARRI

Bazkariaren ostean, bingo musikatuan oparitzoak irabazteko aukera ere izango dute.

Tupper festan parte hartu nahi duten gazteek hurrengo egunetan adi egon beharko dute Ttakuneko

sare sozialetara, bertan argitaratuko baita izena emateko esteka.

**Patxintxien sarien banaketa**  
65 urte baino gehiago dituzten bi herritar maitagarri omenduko

dituzte Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak *Gure Patxintxiak* sariaren bitartez.

Urtebeteko etenaren ostean, zortzi proposamen jaso zituen kultur elkarteak eta horien artean, ekainaren 18tik 23ra bozka epea ireki zen TXINTXARRI-ko webgunean.

Egun horietan guztietan jasotako bozkei esker, 2021 urteko irabazleak Patxi Manchado eta Felixia Tapia izan dira.

San Pedro egunean, ekainaren 29an, 12:30ean, jasoko dute saria, Manuel Lekuona kultur etxeo hitzaldi aretoan egingo den ekitaldi xumean.

Hitzaldi aretoko edukiera mugatua izaki, ekimena ikusteko Ttakunen sare sozialetan argitaratu den formularioan izena eman behar da.

## Egoerara moldatuta

Euskal kultura sustatzeko hainbat ekintza antolatu ohi ditu Ttakun Kultur Elkarteak San Pedro Jaietan, hala nola, sagardo dastaketa edo kantu-dantza jira.

Indarrean dauden neurriak medio, ekimen hauek San Pedro Jaietako ohiko datetatik kanpo egingo dira. Zehazki, uztailaren 10ean, larunbatarekin.

Goizean, Xumela koruko eta Plaza dantza ekimeneko kideek egoerara moldatutako kantu-jira egingo dute.

Herriko bost gunetan egingo du geldialdia ekimenak eta 10

minutuz jaietako eta udako giroaz alaituko dituzte bertako herritarrek.

Eguerdi aldera, sagardo dastaketari hasiera emango dion emanalditxoarekin amaituko da ekimena.

Lasarte-Oriako baserrietan ekoiztutako sagardoa dastatzeko hitzorduak ere aldaketa batzuk izango ditu. Dastaketa eremua hesituta egongo da eta edukiera mugatua izango du. Horrez gain, dastaketa mahaietan egingo da eta mahai bakoitzaren inguruan ezingo dira sei pertsona baino gehiago bildu.

Bi ekintza hauei buruzko xehetasun gehiago hurrengo asteko zenbakian eskainiko ditugu, hala nola, dastaketan parte-hartzeko izen ematea nola egingo den.

## Sorgin Dantzarik ez

Bestalde, herritarren pilaketak saiheste aldera, San Pedro Jaietan errotua dagoen Sorgin Dantzarik ez da antolatuko.

Ttakun Kultur Elkarteak, ordea, ez du baztertzeko beste dataren batean eta garain garaiko neurriak jarraituz antolatu ahal izatea.

## KANTU-DANTZA JIRA ETA SAGARDO DASTAKETA UZTAILAREN 10EAN ANTOLATUKO DIRA



# Okela

HARATEGIA

- ARTISAU URDAITEGIA
- ETXEKO JANARIA
- BERTAKO HARAGIA

Kale Nagusia 41, 20160 LASARTE-ORIA • Tel.: 943 36 39 12  
Nafarroa kalea 3, 20230 LEGAZPI • Tel.: 943 73 18 25  
(Maialen) Karmelo Etxegarai 10, 20018 DONOSTIA • 943 31 40 43 (Ilgandetan irekita)



## Ikasteko eta dibertitzeko jarduerak

### Haurren aisia sustatzeko

Ttakun Kultur Elkartek, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean, haurrentzako aisia sustatzeko helburuz, lau tailer aurrera eramaten ari da aste honetan. Azkenekoa ekainaren 25ean egingo dute, ostiralez, 10:30etik 12:30era, Garaikoetxea-Landaberi ikastolako patioan: olinpiadak.

Helburu nagusia, esan bezala, etxeko gazteenei goiz ederrak igarotzeko aukera ematea izaten da, ikasi bitartean dibertitu daitezzen. Saio guztiak gune bakarrean antolatu beharrean, eskaintza deszentralizatu osatu dute antolatzaileek. Herriko auzo eta gune desberdinetan burutu dituzte ikastaroak.

Horiek ez dira Ttakun KEk egun hauetan egin dituen ekintza bakarrik izan. Programa ezberdinetako ikasturte amaierako ekimen bereziak ere ari da gauzatzen. Ekainaren 24an Gazte Klubeko kideek era ezin hobean eman zioten amaiera ikasturteari, paintballean.



Kamisetak, kolorez beteak. TTAKUN KE



Lan ederra egin du taldeak. TTAKUN KE

### Kamisetak tindatzen

Kamiseta eder eta koloretsuak egin zituzten LH5etik DBH2ra arteko gazteek ekainaren 21ean, Tximistarreta parkean. Begiraleek erakutsitakoa praktikan jarri, eta jantzi horiek tindatu zituzten, giro ederrean.



Gazteak, dantzak ikasten. TTAKUN KE



Umeak, begiraleak dioenari adi. TTAKUN KE

### Erritmo betean

Asteko bigarren tailerra Oriako frontoian egin zuten gazteek, ekainaren 22an, asteartearekin. Orduko horretan, perkusioa eta dantza tribalak ezagutu dituzte, eta baita gorputza dantzan jarri ere, erritmo betean.



Gazteak, buruhandiak sortzen. TTAKUN KE



Talde argazkia atera dute. TTAKUN KE

### Buruhandi eder askoak

Ttakunenean elkartu diren gazteek buruhandi eder askoak sortu zituzten ekainaren 23ko tailerrean. Kartoiak, koloretako hariak eta margoak...eta irudimena erabili zituzten ikastaroan zehar.



Gazte Klubeko taldea. TTAKUN KE



Gazteak, paintball eremuan. TTAKUN KE

### Paintballean jolasean

Gazte Klubeko kideek ikasturte amaierako ekintza bereziaz gozatzeko aukera izan zuten, atzo, ekainaren 24an. Zubietako Puelaberri PaintBall jolastokira joan ziren margo guda ederra egitera.

**MZUBI**  
LASARTE-ORIA

muebleszubi@hotmail.com

Geltoki Kalea 21 LASARTE-ORIA

Tel.: 943 36 24 67



Ondo pasa San Pedro Jai berezi hauetan!



**NOAOA**  
BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10 LASARTE-ORIA

**943 37 36 13**

info@noaoa.eus

*Gora Lasarte-Oria! Gora San Pedro Jaiak!*

# txintx rri

*Gora Lasarte-Oria! Gora San Pedro Jaiak!*

*Datorren urtean elkarrekin biziko ditugu jaiak!*



# Eragileak, 2022. urteko San Pedro Jaaien zain

San Pedro Jaietako egitarauan hamaika dira herriko elkarteek antolatutako ekimenak. Urte zaila izan da guztientzat. Asko etenda egon behar izan dira zenbait hilabetez eta gutxi batzuek ez dute jardunik izan urte osoan zehar. Egoerari aurre egin eta hurrengo urteko jaiak ospatzeko irrikitan daude guztiak

## "Jaiak berriro ere antolatzen hasten diren momentuaren zain gaude"

### LOZET ELKARTEA

2020ko martxotik euren jarduna etenda dute LOZET elkarteko kideek

#### Nerea Eizagirre

Lasarte-Oriako erraldoiak, buruhandiak eta zezen-suzkoak bigarren urtez geldirik egongo dira Blas de Lezoko lokalean. 2020ko martxotik LOZETeko kideek euren jarduna etenda dute, eta "jaiak berriro ere antolatzen diren momentuaren zain" daude.

**Aurten ere, ordea, ez da San Pedro Jairik egongo. Ekintza kulturalak izango dira ekaina eta uztailean zehar, harritu al zaituzte udalaren erabakiak?**

Ez, herri guztietan berdin ari dira jokatzeko. Guk 2021. urtean jarduerari berrekingo geniola pentsatzen genuen. Baina ezin izan dugu ezer egin. Planak bertan behera geratu dira, bai herrikoak, baita beste herrietako erraldoien bilkurak eta berregite historikoak ere.

**Ezingo duzue egun berezi hauetan kalera atera, baina beste ekintzarik pentsatu al duzue?**

Pentsatu genuen, baina erraldoiak geldi egotea hurrek argazkiak atera ahal izateko edo eurek gustuko dituzten jantziekin marraztea ez da dantzan ikustea bezain dibertigarria. Zezen suzkoaren



Aurten ere zezen suzkoak geldirik egongo dira. TXINTXARRI

edo buruhandien aurrean korrika egitea gustuko dute. Hori gaur egun zaila da. **Zein mezu bidali nahi diezue herritarrei bigarren sanpedro berezietan?**

Pazientzia, gero eta gutxiago geratzen da jai giroa berreskuratzeko. Guk, guztiok bezala jaietz gozatu nahi dugu, baina gaur egun edozein neurrigabekeria atzera joatea izango litzateke eta murrizketetara itzultzea. Gozatu ahal duzuen guztia, baina zuhurtziaz. Behar bezalako jaiak ospatzeko gero eta gutxiago falta da. Gora San Pedro Jaiak!!

## "Erakusleiho guztiak apaintzea gustatuko litzauguke. Anima zaitzete!"

### ATERPEA ELKARTEA

Herriko denda eta tabernak atonduko dituzte herria alaitzeko

#### Nerea Eizagirre

Urte zaila izan dute herriko komertzio eta ostalariek. Orokorrean egoerak hobera egin du eta neurriak malgutu dira "denon artean, erakunde eta herritarrek, egoera hau gainditzeko ari gara", baina herriko elkarteak azpimarratu duenez, "herriko dendetan salmentak gutxitu dira". Horri aurre egiteko ekimen ugari antolatu dituzte urtean zehar. Egun berezi hauetan, Aterpeko bazkideek euren dendak eta tabernak alaituko dituzte. Sardin-jana, ordea, ezingo dute gauzatu.

**Aurten ere ez da San Pedro Jairik egongo. Ekintza kulturalak izango dira ekaina eta uztailean zehar, harritu al zaituztete udalaren erabakiak?**

Erabakia ulertzen dugu. Gaur eguneko egoera kontutan hartuta, erantzukizuneko jokatzeko unea da.

**Aterpeak, ohikoa denez, komertzioak apaindu eta sardin-jana prestatzen du. Zein asmo duzue aurten?**

Establezimenduko erakusleiho guztiak apaintzea gustatuko litzauguke. Anima



Aterpea elkarteko kideak sardin-jana banatzen. TXINTXARRI

zaitzete! Jendearen gogoia indartzeko eta herriari festa giroa ematen laguntzeko modu bat da.

Eta datorren urtean sardin-jana merezi duen bezala ospatzea espero dugu! **Zein mezu bidali nahi diezue herritarrei bigarren sanpedro berezietan?**

Lasarteoriatar guztiei erantzukizuneko eta ahal den neurrian sanpedro berezi hauek ahalik eta hobekien ospatzea opa diegu. Gora San Pedro Jaiak eta Gora Lasarte-Oria!

Elkarrizketa osoak [txintxarri.eus](http://txintxarri.eus) orrialdean

**Sasoeta-Zumaburu**  
herri-ikastetxea

*Herrikoa, solidarioa eta etorkizunari begiratzen diona*

**ONDO PASA EGUN HAUETAN!**

Kalbario bidea 4, Tel. 943 36 12 26 eta Zumaburu 13, Tel. 943 36 22 74

**ANORGA TXIBI S.L**  
KRISTALDEGIA

*Ondo pasa San Pedro jai berezietan!!*

- komertzial instalazioak
- beira bikoitza
- segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak
- barandak
- kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA / 943 37 17 33 - 610 45 93 45

## "Aurtengo jaiak ahal bezala ospatu eta datorren urterako indarrak gorde"

### ERKETZ EUSKAL DANTZA TALDEA

Urte honetan zehar taldeak ez du emanaldirik antolatu ahal izan

#### Nerea Eizagirre

Azken bi urteetan, Erketz EDTko kideek ezin izan dute jaietako aurrekari den emanaldirik antolatu. Ikasturtean zehar, helduen taldeak ez du ia entseatzeko aukerarik izan; dantza eskolak, berriz, bere jarduna mantendu du. San Joan bezperako soka-dantzarik ere ez dute dantzatzetik izan, baina datorren ikasturtean emanaldiak "normaltasunez" eskaini ahal izatea espero du taldeak.

**Aurten ere ez da San Pedro Jairik egongo. Ekintza kulturalak izango dira ekaina eta uztaillean zehar, harritu al zaituzte udalaren erabakiak?**

Ez, zuhurtziaz jokatu behar da egoera gainditu ahal izateko.

**Ikasturte amaierako dantzaldia eta San Joan soko soka-dantza ere ezin izango dituzue egin. Baina meza nagusian egongo zarete, ezta?**

Iaz ere hala egin genuen, eta aurten berriz ere herri mezan parte hartuko dugu.

**Beste ekimenik egitea aztertu duzue?**



San Joan bezperako soka-dantza. TXINTXARRI

Bai, ikasturte amaierarako bestelako ekitaldiren bat prestatzea pentsatu genuen, baina osasun neurrien gorabehera dena bertan behera geratu zen.

**Zein mezu bidali nahi diezue herritarrei bigarren sanpedro berezietan?**

Bizi dugun egoera ikusita, aurtengo jaiak ahal bezala ospatu eta datorren urterako indarrak gorde ditzatela.

Aukera hau aprobetxatuz, datorren ikasturtea gurekin dantzan hasteko gonbitea luzatzen diegu!

## "Datorren urtean Lasarte-Oriako eta beste herriko jaiak ospatzea espero dugu"

### ALBOKA ABESBATZA

Azarotik maiatzera herriko abesbatzak ezin izan du entseatu

#### Nerea Eizagirre

Azaroan neurriak zorroztu zirenean jardun presentziala eten zuen Alboka abesbatzak. Hilabeteak igaro eta maiatzera arte, ezin izan du berrito entseatzetik izan. Ondorioz, ezin izan du San Pedro Jaietako kontzertua prestatu.

**Aurten ere ez da San Pedro Jairik egongo. Ekintza kulturalak izango dira ekaina eta uztaillean zehar, harritu al zaituzte udalaren erabakiak?**

Nahiz eta txertaketa kanpainak aurrera egin duen, kutsatzeko aukerak daude oraindik. Zuhurtziaz jokatu behar da eta jende pilaketak saihestu behar ditugu. Datorren urtean herriko jaiak eta beste batzuk berrito ere ospatuko direla espero dugu, baita kontzertuak eskaini ahalko ditugula ere.

**Kontzertuak aipatu dituzuela, San Pedro Jaietako aurrekari den kontzerturik ezin izan duzue antolatu. San Joan bezperako suan edo jaietan ere ezingo duzue parte hartu...**

Pena bat da San Joan suaren inguruan edo San Pedroko meza nagusian ezin



Alboka abesbatza, 2020ko uztailko kontzertuan. TXINTXARRI

abestu izana. Bi ekimenak ohitura handikoak dira gure herrian eta bien falta sentitzen dugu.

**Zein mezu bidali nahi diezue herritarrei bigarren sanpedro berezietan?**

Esperantza eta segurtasun mezua helarazi nahi dugu. Pandemia egoera onera egiten ari da. Egoera hori aurre egin eta laster amaiera emateko zuhurtziaz jokatzeko jarraitzea animatu nahi ditugu. Era horretara, gure jaiak eta ekintza sozio-kulturalak berreskuratu ahalko baititugu.



Biyak Bateko Lerroko dantzen erakustaldia. TXINTXARRI

## "Neurriek ahalbidetzen duten heinean egun zoriontsuak igaro ditzagula"

### BIYAK BAT ELKARTEA

Pixkanaka egoitzako eta elkarteko jarduna berreskuratzen ari da

#### Nerea Eizagirre

Biyak Bat elkarteak hilabete askoz izan ditu atatak itxita. "Oso tristea izan da elkartea hutsik ikustea. Bazkideak kaletik ikusi eta noiz hasiko ginen galdetzen zuten eta gu erantzun ezinik aurkitu gara askotan. Gogorra izan da", adierazi dute elkarteko kideek.

Neurriak malgutu ahala, bere jarduna berreskuratu du Biyak Batek. Zerbitzu batzuk eskaintzen hasi da berrito ere: taberna-jatetxea, podologoa, gizon, zein emakumeen ileapaindegia eta kiromasajista.

Zuzendaritzako kideak ere lanean dira eta bulegoan aurkitu ditzakegu astean

zehar goiz eta arratsaldez elkarte eta bertako eginkizunak aurrera eramaten.

Tamalez, oraingoz, elkarteko jarduna ez dago %100ean. Hilabetetan jardunik egon ez denez, aurten ere ezin izan dute sanpedrotan egin ohi dituzten erakustaldi edo lehiaketarik antolatu. Egoerak onenera eginez gero, irailean ikastaro ezberdinak martxan izatea espero dute eta hurrengo jaietarako berrito ekimenak antolatu ahal izatea.

Aurtengo egun bereziei begira, berriz, bazkide eta lasarteoriatar guztiei, neurriek ahalbidetzen duten heinean, egun zoriontsuak izan eta horietaz gozatzea opa diete Biyak Bat elkarteko kideek.



uztailaren 31ra arte

**Moto edo autorako CONTINENTAL gorpilak erosita, erregai-txekea eskura dezakezu**

16" edo 17" Ilanta	18" edo handiagoak
2 gorpil    4 gorpil	2 gorpil    4 gorpil
 <span style="font-size: 24px; font-weight: bold;">20€</span> <span style="font-size: 24px; font-weight: bold;">50€</span>	 <span style="font-size: 24px; font-weight: bold;">35€</span> <span style="font-size: 24px; font-weight: bold;">80€</span>
 <span style="font-size: 24px; font-weight: bold;">40€</span>	<p>Zumaburu 18 Lasarte-Oria Tel: 943 36 24 63</p>

# MAiTE

ESTETIKA ARETOA





**Aurpegiko eta gorputzeko azala**

- ✓ BERROREKATU
- ✓ BERRESKURATU
- ✓ BIRSORTU

Ehunen birsortzea eta giharren indartzea tratamendu bakarrean.

**Presta zaitetz festetarako, merezi du eta!**

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria

# Jairik gabeko kultur ekintzaz beteriko hilak

San Pedro Jairik ospatuko ez den arren, udalak ekainerako eta uztaileko prestatutako kultur agenda abian da. Ekintza ugaritan parte hartzeko aukera izan dute herritarrek, eta uztaila amaierara arte ere jarraituko dute aukera hori izaten

## Txintxarri

COVID-19ak eragindako pandemiaren bilakaerak hala behartuta, aurtengo San Pedro Jaiak bertan behera utzi ditu Lasarte-Oriako Udalak. Hala ere, ekainerako eta uztaileko kultur ekintzaz betetako egitarau zabala prestatu dute. Askotariko kultur ekintza ezberdinak izango dira herritarren gozamenerako.

Brancussi eskolako ikasleen XVI. pintura eta margolaritza erakusketak zabaldu zuen ekaineko agenda, eta orduz geroztik, makina bat ekintzetan parte hartzen ari dira lasarteoriatarrek.



Kai Nakai musikaria. TXINTXARRI

Kai Nakairen musika emanaldira ere gerturatu ziren ikus-entzuleak, eta Udal Musika Eskolako ikasleek ere eskaini dituzte ikasturte amaierako musika emanaldiak.

Oriarte Institutuko ikasleek Zinema (H)abian egitasmoaren baitan sortutako lanak ere erakutsi dituzte kultur etxeko auditorioan, eta bertan aritu dira, baita ere, lehen bakarrizketa saioak egin dituzten umoregile Oscar Terol eta Sara Escudero ere. Eta antzerki obrarik ere ikusi ahal izan dute lasarteoriatarrek; The Chanclettes taldeak *AntiCoronaCAVA.ret* lana taularatu du.

Ekainaren 25ean herriko musika-talde bat ariko da kultur etxeko auditorioan. Makulu Ken taldeak *Afrobeat* doinuak eskainiko dizkie bertaratzeko direnei. 19:00etan izango da, auditorioan, eta sarrerak 5,50 euroren truke erosi daitezke.

Ekainaren 26an, berriz ere, bakarrizketa saioak izango dira. Oraingoan, Nerea Garmendia eta Santi Rodriguez izango dira auditorioko taula gainean, erdaraz. 12 euro balio dute bakarrizketa horiek ikustera joateko sarrerak, eta emanaldia, 19:00etan hasiko da.

Nafarroako doinuek girotuko dute kultur etxea, hilaren 27an; La Ribera Canta taldearen eskutik, Nafarroako jotak entzuteko aukera izango dute herritarrek. 12:30ean izango da emanaldia, eta 5,50 eurotan eskuratu daitezke sarrerak. Eta, egun berean, baina 18:00etan, familia-antzerkia izango da. Mago Sunek *Bat, bi, hiru...Magia* ikuskizunarekin gozaraziko ditu familiak. Euskaraz izango da, eta sarrerak 3,80 euro balio dute.

Ekaina amaitzeko, bakarrizketa saio gehiago izango dira. Hilaren

28an, esaterako, Mikel Bermejo herritarra eta JJ Vazquez arituko dira oholtza gainean. Emanaldia 19:00etan izango da, erdaraz, eta sarrerak 12 euroren truke eskuratu daitezke.

San Pedro egunez, berriz, Xilipurdi antzerki taldeak *Salam* izeneko familia-antzerkiaren emanaldia egingo du. Euskaraz izango da, 17:00etan, eta sarrerak 3,80 eurotan salduko dituzte. Eta, bertsolariak ere oholtzaratuko dira Manuel Lekuonan. Egun berean, baina 20:00etan, Bertso-festa eder bat egingo dute. Ane Labaka, Lierni Rekondo, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Uxue Alberdi arituko dira bertsotan, eta, Maddi Labaka gai-jartzailea arduratuko da saioa gidatzeaz.

## Uztailean ere ekitaldi mordoak

Uztailean ere kultura ekitaldi ugarirekin gozatu ahal izango dute herritarrek. Kale antzerkia, bakarrizketak, dantza zirkuitua, eta kontzertuak izango dira. Azken ekintza horien artean, arituko dira Aroa Lasa herritarra, Olatz Salvador eta Willis Drumond musika taldeak.



**SUGATE** SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma-armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



*Ondo pasa!*

Pintore kalea 5, Lasarte-Oria | Tel: 943 361 471 | [www.sugatecocinas.com](http://www.sugatecocinas.com)

GIZONEZKO ILEAPAINDEGIA



PELUQUERIA DE CABALLEROS

✓ Higienea bermatua

**HITZORDUA HARTU!**  
943 841 972  
672 717 206

Kale Nagusia, 2 Lasarte-Oria



**ile-apaindegia**

Gora Lasarte-Oria!

Geltoki kalea 3  
MUGIKORRA: 600 523 988  
LASARTE-ORIA

*Ondo pasa jai berezi hauetan!*



**Deskontu eta beherapen handiak!**

**Bideo TIEN 21 Lagunak**

-  Finantziazioa neurrira
-  Garraio zerbitzua
-  Erabilitako gailuen jasotzea
-  Aholkularitza espezializatua
-  Preziorik onena

**Etxekotresna elektrikoetan adituak**

**ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA**

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | [www.bideolagunak.com](http://www.bideolagunak.com)



# 'Afrobeat' doinuekin girotuko dira herritarrak

## MAKULU KEN MUSIKA TALDEA

Lasarte-Oriako Makulu Ken taldeak musika emanaldia eskainiko du, ekainaren 25ean, Manuel Lekuona kultur etxean. 'Euskal Afrobeat' doinu dantzagarriak ekarriko dituzte

### Maddi Zaldua

Lasarte-Oriako Makulu Ken musika taldeak kontzertua eskainiko du ekainaren 25ean, ostiralez, Manuel Lekuona kultur etxean. Pandemia garai hauei erritmo bizi eta alaia jarriko diete euren *Euskal Afrobeat* doinuekin. Kontzertuaren eta beste zenbait konturen inguruan hitz egin dugu hainbat taldekideekin. Kontatu dute duela hamalau urte, 2007. urtean eman zutela lehen kontzertua, Jalgi Kafe Antzokian. Lehen doinuak sortzen, ordea, urtebete lehenago hasi ziren.

Iñigo Suberbiola perkusio jotzailea eta Xabi Herrera hasi ziren taldeari forma emanez: "Garaje batean elkartzen ginen, eta pixkanaka taldekide berrien bila hasi ginen". Horrela batu ziren taldera bateria jotzailea, korista emakumeak, eta saxofoi eta tronpeta jotzaileak, eta kide horietako batzuk taldea utzi duten arren, beste batzuek elkarrekin jarraitzen dute, oholtza gainean. Bederatzi musikarik osatzen dute, gaur-gaurkoz, Makulu Ken: Xabier Herrera gitarra-jotzaile eta abeslaria, Eider Ormazabal abeslaria, Bea Hurtado teklista, Iñigo Suberbiola perkusio-jotzailea, Unai de Andres baxu-



Euskal Afrobeat doinuak ekarriko ditu Makulu Ken taldeak kultur etxera. MAKULU KEN

jotzailea, Nagore Etxabe bateria-jotzailea, Pau Torres saxofoi-jotzailea, Ixak Oartzabal saxofoi tenor-jotzailea eta Julen Rodriguez tronpeta-jotzaileak. Kontzertuak dituzten leku guztietara eurekin joaten den Iñigo Egia teknikoa ere ez dute aipatu gabe utzi nahi izan.

Horiek guztiak ez dira lasarteoriatarak, ordea. Badira herritarrak izanik herritik kanpo bizi direnak, Lasarte-Orian jaioak izan gabe bertan bizi direnak, baita herrian jaio eta herrian bertan bizi direnak ere.

A f r i k a r d o i n u a k , Nigerian 70. hamarkadan sortutako *Afrobeat* doinuekin osatzen dituzte euren abestiak. Doinu alaiak, biziak eta erritmikoekin egiten dute *Euskal Afrobeat* delakoa.

Eta doinu alaiak baliatzen dituzte mezu eta letra "errebindikatiboak" egiteko: "Jatorriz salaketarako erabiltzen zen *afrobeata*. Fela Kuti izeneko Nigeriako musikari batek sortu zuen, eta, esaten dutenez, Nelson Mandelaren ostean, bera izan zen Afrikako beste

iraultzaileetako bat. Gu ez gara hain erradikalak, baina gure abestietako letrek badute kezatik, baziletik".

**Makuluak kentzeko nahia** Taldeari izena ematen dion hitz jokoa "euskara indioa" dela azaldu dute taldekideek. Euskaraz idatzita badago ere, taldeak Afrikarekiko duen eragina dela-eta, sonoritate afrikarra eman nahi izan dio. Eta zentzua, figuratiboa: "Makuluak kentzea esan nahi du, baina makulu mentalak". Azaldu dute, makuluen ideiak ekarri duela malefiziorik taldera ere: "Taldeko ia denok erabili ditugu makuluak; azkena, bateria jotzaileak. Kontzerturen batera ere joan izan gara makuluekin".

Orain gutxira arte, beste musikarien abestien bertsioak egiteari uko egin diotela jakinarazi dute, nahiz eta, azkenaldian, eta, besteak beste COVID-19ak eragindako itxialdien ondorioz, bertsio batzuk egin dituzten; hala nola, Mikel Laboaren *Bi kate* abestiarena.

### Koronabirusaren eraginak

Disko berria grabatzen ari zirela bete-betean harrapatu zuen musika taldea COVID-19ak. Lanketa hori bere horretan geratu, eta bi abesti soilik grabatzera iritsi ziren.

Hitzartuta zituzten kontzertu batzuk ere bertan behera geratu

**"ANTZOKI BATEAN JENDEA ESERITA DAGOELA JOKO DUGUN LEHEN ALDIA IZANGO DA"**

zitzaizkien, nahiz eta utzi zizkietenak jo ahal izan zituzten.

### Herriko emanaldirako gogoz

"Gogoz eta urduritasun puntu batekin" daude herriko emanaldirako. Aitortu dute "pena" apur bat ematen diela emanaldia kalean beharrean, antzoki batean eskaini behar izateak: "Kalean, aire zabalean jotzera ohituak gaude. Gure musika dantzatzeko da, eta gure publikoa ere ohituta dago saltsan aritzera". Zentzu horretan, lehen aldia izango da antzoki batean eserita dauden ikus-entzuleen aurrean joko dutena, baina ziur daude bertaratzen direnekin batera gozatuko dutela: "Herrian jotzea polita da".

Aurreratu dute "kristoren kontzertua" eskainiko dietela bertaratzen direnei. Betiko abestiak tartekatuko dituzten arren, kontzertu gehiena abesti berriekin osatuko dutela, eta sorpresaren bat edo beste ere izango dela iragarri dute. Horrez gain, dei egin diete herritarrei hitzordua gerturatu eta kontzertuaz gozatzera joan daitezen.

### Sarrera kobratzearen aurka

Desadostasuna agertu dute udalak euren kontzertura joan nahi dutenei sarrera kobratzeko erabakiarekin. Taldekideek uste dute udalak, sanpedroen harira antolatu duen ekintza bat izaki, aurrekontu bat baduela kultur ekintzetara bideratzeko: "Guri ez digute sarrera horietatik eskuratutako dirutik ezer ordainduko, hortaz ez gaude ados horrekin. Inork ez zigun jakinarazi sarrera kobratu egingo zutenik".

**aldika**   
produktu bereziak

- ahatekinak
- ehizak eta hegaztiak
- bakailao gezatua
- ondoak
- marinatuak
- olagarroa



*Ondo pasa San Pedro  
Jai berezi hauetan!*

Industrialdea 19-20 LASARTE-ORIA • Tel.: 943377089 • [aldika@aldika.com](mailto:aldika@aldika.com) • [www.aldika.com](http://www.aldika.com)



# Herriko bertsozaleen huts egin ezinezko zita

Hiru lasarteoriatarrek parte hartuko dute San Pedro egunean egingo duten bertso saioan. Ane Labaka urtetan aritu da, Lierni Rekondok, berriz, aurtengoa du lehena, eta Maddi Labakak laugarrenez gaiak jarriko dizkie biei eta gainerako bertsoari

## Maitane Aldanondo

Sanpedrorik ez da izango, baina egitarauaren osagai finkoetako bat den bertso saioak ez du hutsik egingo. Ekainaren 29an, San Pedro egunean, dute hitzordua bertsozaleek. Ane Labaka eta Lierni Rekondo herritarrekin batera, Uxue Alberdi, Amets Arzallus, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio izango dira kultur etxeko oholtzan. Haiei gaiak jartzeko ardura, berriz, beste lasarteoriatar batek izango du, Maddi Labakak, hain zuzen ere. Hiruekin hitz egin du TXINTXARRI-k ekitaldiari buruz.

Labaka ahizpek eskarmentua badute udako saio honetan. Anek ez du gogoan noiz izan zen lehen aldia, "gaztetxoia izango nintzen...". Bai, ordea, urte mordoxka batean aritu dela. "Hasieran, horrenbeste aukera ez dituzunean, beti parte hartzen duzu zure herrikoan". Maddik, berriz, beste hiru bat urtetan hartu du asteartean izango duen ardura. Haietaz ez bezala, Rekondorentzat estreinakoa da. Aurretik proposatu zioten parte hartzea, baina ez zen ausartu; aurten animatu da pausoa ematera. "Ez dut inoiz horrelako plaza handirik egin eta polita da lehenengoa herrian izatea", aitortu du urduritasun eta ilusio nahasketa dirudienaz.



Ane Labaka (eskuinean), 2019ko bertso jaialdian abesten. TXINTXARRI

Jaialdia "erreferente" bat da berarentzat, eta gogoan du umetan ikustera joaten zela. Beste bi herrikideak ere makina bat aldiz izan dira oholtza azpian, entzule. "Huts egin ezinezko zita bat", aitaren zaletasunak bultzatuta, lehenik, eta beraienak, ondoren.

## Aspaldiko ezagunak

Herrian aritzea bera berezia bada, gertuko norbait alboan izanda are gehiago. Ane Labaka eta Rekondo irakasle eta ikasle izan ziren bertso eskolan, hurrenez hurren. Aspaldi ez

dira elkarrekin bertsoan aritu eta beraien hitzetan nabari da ilusioa egiten diela lehenengoz oholtza partekatzeak. "Ane ondoan izatea oso berezia izango da, eta uste dut horrek lasaitasuna emango didala urduritasun guztiaren barruan. Erreferentea izateaz gain, irakasle eta laguna ere neurri batean izan delako", azaldu du Rekondok.

Ikasle ohiaz gain, Anek, gainera, ahizpa ere izango du ondoan; nahiz eta bestelako rol batean ariko den. Herrian eta herrikan kanto behin baino

gehiagotan egokitu izan zaie batak gaia proposatu eta besteak kantuan egin behar izatea. Edonola, Maddik argi du. "Biok badakigu taula gainean zein den daukagun rola. Nik gaia jartzen badiot berari, ahizpa izan edo ez, ahal duena egingo du eta erantzun".

Egun gutxi falta dira saiorako eta gutxi gorabehera erabakita du zein gai eta neurri proposatuko dituen. Bi lanak ondo ezagutzen ditu eta bakoitzaren "ikuskerak eta planteamendua" erabat bestelakoa dela dio, baita mikro aurrean jarri arteko bidea ere, gai jartzaileak aurretikako lana egin behar baitu. "Egitura prestatu behar duzu bai zer bertsolari diren kontuan hartuta bai zein publikori zuzendua dagoen bai non izango den. Ideiak biltzen joan behar duzu, herrian gertatutako gauzak edo gai bezala har daitezkeenak bilatzen". Udako saioak eta festa garaietakoak arinagoak izan ohi dira, ez du gairik aurreratu, baina ohartarazi duenez, herrian garrantzia izan duen zerbait gertatu bada "toki ona izan daiteke bozgorailu bezala erabiltzeko, nahiz eta ez izan gai alai bat, jendea iragarritzeko".

Rekondok eta Maddi Labakak pare bat aldiz kointziditu dute bertso kontuetan. Oraingoan, ordea, hiruek lehenengoz bat egingo dute taula gainean. Horren balioa nabarmendu du Rekondok. "Herrian bertso munduan gabiltzan hiru pertsona gara gaur egun, hiruek emakumeak, hiruek gazteak, eta hori ere aipatzekoa da. Oso polita izango da".

## Plazari eustea, ezinbesteko

Aurten jairik ez bada ere, udalak egunotarako prestatutako eskaintzan tokia egin die bertsoei,

iazko hutsunearen ondoren. "Pena handia izan zen. Erdi antolatuta zegoen eta azken unean bertan behera utzi zuten. Bertso eskolarentzat pixka bat amorragarria izan zen, inguruko herrietan egin zirelako", gogoratu du Ane Labakak, "aurten ez zegoen aitzakiarik". Pandemiak bete-betean eragin dio bertsoari, plaza kopurua asko murriztu da, beraz, funtsezkotzat jo dute saioa egitea bera. Rekondoren esanetan, "bertsolari gero eta indartsuago dago, baina, hala ere, komeni da indartzea eta sustatzea; are gehiago, Lasarte bezalako herri batean. Oso garrantzitsua da lekua hartzea".

Ildo beretik, hiruek kultura segurua dela aldarrikatu dute, neurriak eta tarteak errespetatuta gauzak egin daitezkeela. Bi urte itxaron behar izan duten bertsozaleei eta herritarrei gonbita luzatu die Rekondok. "Oso aukera polita da, arnagune bat bizi dugun egoera honetan, beraz, anima daitezela etortzera eta gozatzera". Ane Labaka berarekin bat dator. "Kultur ekitaldiak jendea elkartzeko modu bat bilakatu dira. Egin daiteken gauza kolektiboetako bat da bertso saio batera joatea eta aspaldi ikusi ez dituzun horien aurpegiak ikustea. Herri sentsazio hori berreskuratzea". Elkarrekin egon, ondo pasa, dibertitu eta "festa polita bat" egiteko aukera izateaz gain, aldi berean, kultur gileak babesteko keinu bat ere badela dio.

## LABAKA AHIZPEK ETA LIERNI REKONDOK LEHENENGOZ BAT EGINGO DUTE OHOLTZA GANEAN




600 857 586  
www.electricidadarregui.com  
tienda.electricidadarregui.com  
(on-line denda)

## Iritsi da beroa! Freska zaitez!



**SABAIKO LANPARRA-HAIZAGAILU**  
Kolorak: TXURIA, NIKEL eta BELTZA  
Haizagailu ereisgarria eta urrutiko kontrolarekin



**PINTZA MAGNETIKOAK**

**DORRE HAIZAGAILUA**  
Ikusezina, eraginkorra eta soinu gabekoa

**PLANTXA GRILL ELEKTRIKOA**



Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21

# "Ederki pasako dugu ekainaren 28an"

**MIKEL BERMEJO UMORISTA**

Jaioterrian eskainiko du emanaldia Mikel Bermejok, J.J. Vaquerorekin batera, ekainaren 28an, astelehenez, kultur etxean. Bakarrizketa saioa 19:00etan hasiko da

**Iñigo Gonzalez Sarobe**

Mikel Bermejo umoristak (Lasarte-Oria, 1991) herrian eskainiko du emanaldia, Manuel Lekuona kultur etxean. Hitzordua ekainaren 28an izango da, astelehenez, 19:00etan, Manuel Lekuona kultur etxean. *Ahí va la hostia* izeneko ikuskizunarekin, barrez leherrarazi nahi ditu ikus-entzuleak.

**Madriletak Lasarte-Oriara etorriko zara ekainaren 28an, jaioterria, emanaldia eskaintzera. Gogotsu?**

Bai, oso gogotsu. Aspaldiko partez, J.J. Vaquerorekin batera eskainiko dut emanaldia. 2018ko maiatzaren 9an aritu ginen azkeneko aldiz.



Mikel Bermejo herritarra. IÑIGO G.S.

**Biak batera ariko zarete kultur etxean ala bakoitzak bere ikuskizuna ekarriko du herrira?**

Bakoitzak berea. Oraindik ez dugu hitz egin, baina, biok bukatu eta gero, baliteke elkarrekin aritzea tarte batez, ikus-entzuleekin zerbait inprobisatuko dugu agian... Egunean bertan erabakiko dugu.

**Zer ikuskizun taularatuko duzu?**

Nire ikuskizunak *Ahí va la hostia* izena du; 2020an sortu nuen, COVID-19aren pandemiagatik etxean konfinatuta egon behar izan genuenean. Iazko martxoan lanik gabe geratu nintzen, lotuta nituen ikuskizun guztiak bertan behera geratu ziren... Nire

buruari esan nion, 'Mikel, itxialdia amaitzen denean hobe duzu emanaldiak lotzea diru-sarrerak izateko', eta saio berri bat sortzea erabaki nuen.

Ikuskizunean kontatzen ditudan pasadizo ugari errealak dira, niri gertatu zaizkit: liskarrak Gizarte Segurantzarekin eta DGT trafiko zuzendaritzarekin, pisukideekin izandako anekdotak, duela hilabete batzuk egindako tatuajea... Horiek gogoratzen ditudanean, "*Ahí va la hostia!*" izaten da erreazioa; emanaldiari izen hori jartzea erabaki nuen.

**Zer nolako harrera izan du?**

Madrielen eskaini ditut emanaldiak, eta ikus-entzuleen erantzunak oso onak izan dira. Zorionez, iritzi oso positiboak jaso ditut orain arte; bakarrizketak egin ditudan antzokiko ikuskizun baloratuen da nirea: 10etik 9,7 puntu.

**Zure ikuskizun berria Euskal Herrian erakutsi duzu?**

Orain arte, ez; lehenengo ekainaren 28koa izango da, Lasarte-Orian, eta kultur etxean. Egia da *Ahí va la hostia*ko zatiren bat erabili dudala emanaldi batzuetan. Adibidez, iazko martxoan herriko Bronx tabernan

aritu nintzen eta txiste berri batzuk probatu nituen bertan. **Ikus-entzuleak gozaten eta barrez ari diren antzematea zailagoa da orain? Maskarak, distantzia...**

Dagoeneko ohitu naiz, baina, 2020ko ekainean, berriz ere emanaldiak eskaintzen hasi nintzenean, ez nekien nola aurre egin egoerari; jendearen irribarra ez duzulako ikusten, maskarak daramatzatenez gutxiago entzuten dira algarak, aurpegi osoa ezin diezu ikusi... Ez dakizu saioa gustatzen ari zaien ala ez, gaizki ari zaren ala ondo... Hilabete zailak izan ziren, baina lasaitzen nintzen emanaldiak amaitu eta gero, jendearen iritzi onak entzutean.

**Nola eragin du COVID-19ak zure jardunean? Nola doa 2021. urtea?**

Zorteduna naiz, ekoiztetxe batean lan egiten dudalako eta saioak eskaintzen ditudalako; baina oraindik aforoak murriztuta daude, eta normal kobratu ahal izateko emanaldi gehiago egin behar ditut. Oraindik ere ikuskizunen bat bertan behera utzi didate, aritu baino egun pare bat lehenago, beste bati ezetz esan ostean, baina, 2020an baino gehiago mugitzen ari naiz.

Ondo pasa egun berezi hauetan!

**Carrefour express**

Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria

## MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

● **IBILGAILUAK**

- Motozikletak
- Automobilak
- Autokarabanak
- Furgonetak
- Kamioiak

● **MERKATARITZA**

- **BIZITZA ETA ERRETIROAK**
- **OSASUNA**
- **ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK**

● **ERANTZUNKIZUN ZIBILA**

- **ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK**
- **INBERTSIOAK**
- **PYMEAK...**

Gora Lasarte-Oria!



Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA - Tel.943 36 22 75 & FAXA: 943 37 24 13

# SORGIN JAIAK

"Herria koloreztatzen" eta "kulturaren alde egiten" jarraitzeko asmoz, Sorgin Jaiak egitarau "xumea" antolatu du, COVID-19aren egoerak behartuta. Ekainaren 24an hasi eta 29ra arte, eguneko ekintza bat edo bi burutuko ditu

**GORA SAN PEDRO JIAK!**  
**ONDO PASA ETA ZAINDU ZAITEZTE!**

**Landaberri**  
IKASTOLA  
LASARTE-ORIA

TEJIDOS FERNÁNDEZ

*Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!*

**Fernández**  
ehunak *Ondo pasa eta zaindu zaitetz!*

Kale Nagusia 2 - Tel. 943 36 16 07 - LASARTE-ORIA

SUMMER IS MÓ

**2 mó**  
progresibo  
**229€**  
batzuk eguzkitakoak  
izan daitezke

*Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.*

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**

**MULTIÓPTICAS**

# "Lasarte-Oria koloreztatzeko", Sorgin Jaiak

Lasarte-Oriako jai alternatiboak antolatzen dituen eragileak pandemiaren egoerara moldatutako egitaraua prestatu du. Ekintzetan "segurtasun neurri guztiak" errespetatuko ditu

## Txintxarri

COVID-19ak eragindako egoera tarteko, Lasarte-Oriak ezingo ditu Sorgin Jaiak ohi bezala ospatu aurten ere, baina antolatzaileak ez daude geldirik, eta egitarau "xume" baten bitartez, "herria koloreztatzen" jarraituko dute eta kulturaren alde egingo dute. Azpimarratu dute "segurtasun neurri oro" errespetatuko dutela.

Egitaraua ezagutzera ematearekin batera, Sorgin Jaiak idatzia bidali du TXINTXARRI

aldizkariko erredakziora. Eragileak dio aurtengo egoera ez dela "guztiok nahiko genukeena", baina, hala ere, lortu dutela "egitarau xume bat" antolatzea. Edonola ere, adierazi du aurtengoa ez dela "urte erraza" izaten ari, eta haren jarduna aurrera atera ahal izateko "hamaika oztopo" topatu dituela bidean, "pandemiaren aitzakiatan". "Hori ez du Sorgin Jaiak bizi soilik, herri mugimendu osoak baizik: elkartzeko guneak lortzeko



Sorgin martxa egin zuten iaz kuadrilla gazteek. TXINTXARRI

ezintasuna, ekitaldiak antolatzeko debekuak, materiala gordetzeko lokal falta, eta abar". Herriko jai alternatiboak sustatzen dituen eragilearen aburuz, Lasarte-Oriako Udalak "ez du inongo interesik" herria bizirik mantentzeko.

Sorgin Jaiak "irmoki" eskatzen dio Udalari trabak jartzeari uzteko. Eragileak nabarmendu du, "eragozpenak eragozpen", herri mugimendua bizirik mantentzeko formula berriak topatu dituztela, "denen artean".

## Ekainak 25

**12:00** Elkartasun internazionalista hitzaldia, Osasun Zentroko 2. pisuan.  
**19:00** Kulturaren aldeko kuadrillen jaitsiera, Isla Plazatik abiatuta.

## Ekainak 26

**12:00** Manifestazioa, Okendo plazatik.  
**14:30** Tupper bazkaria eta bingo musikatua, Okendon.

## Ekainak 27

**18:00** Kontzertu akustikoa, Oriarte Landaberrin.

## Ekainak 28

**17:30** Orientazio jolasak, Benedika mendi inguruan.

## Ekainak 29

**18:30** Danborrada, Andatza plazatik abiatuta.

Gora San Pedro Jaiak!

# AZPEITIA

Blas de Lezo, 1 Tel.: 943 361870 mueblesazpeitia@gmail.com  
20160 Lasarte-Oria Fax 943 362179 www.mueblesazpeitia.com

## DANI KARROZERIA

Ondo ibili egun berezi hauetan!

### KOLPE HANDIAK KONPONTZEN TREBEAK

- Kabina labedunak
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatuen garbiketa

Zirkuitu ibilbidea 12 • LASARTE-ORIA • Tel. 943 37 14 40 • Mugikorra: 608 39 18 85  
carroceriasdani@carroceriasdani.com • www.carroceriasdani.com

Gora San Pedro Jaiak!

## M. BERASATEGI

DESDE 1961 ETIK

• KAFE & TEA •

www.cafesberasategi.com

# Zenbat dakizu San Pedro Jaiez?

lehiaketa

## SARIAK:

GALDERA GUZTIAK ASMATZEN  
DITUZUENON ARTEAN  
ERRIGORAKO OTARRA



PARTE HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN  
SORGIN DANTZAKO HIRU ZAPI



# Zenbat dakizu San Pedro Jaiez?

TXINTXARRI aldizkariak herriko jaien gaineko galdera-sorta batekin lehiaketa jarriko du martxan. Ekainaren 25etik 30era bitarte parte hartu ahalko da, aldizkariaren web atarian

### Txintxarri

Festa giro betean beharko luke gure herriak urte sasoi honetan. Koronabirusak eragindako pandemiaren ondorioz, ordea, bigarren urtez jarraian ez da San Pedro Jairik ospatuko herrian; ez orain arte ospatu moduan, behintzat. TXINTXARRI aldizkariak duela bi urtera arteko ospakizunak ekarri nahi izan ditu gogora, eta memoria apur bat freskatzeko, lehiaketa bat prestatu du: *Zenbat dakizu San Pedro Jaiez?*

Zuen jakintza maila neurtu nahi duzue? Adi! San Pedro Jaiez zenbat

dakizuen jakiteko galdera-lehiaketa prestatu dugu-eta! Hamar galdera erantzun beharko dituzue.

Ekainaren 25etik 30era izango duzue lehiaketan parte hartzeko aukera [www.txintxarri.eus/lehiaketa](http://www.txintxarri.eus/lehiaketa) atarian, eta, irabazlea uztailaren lehen jakinaraziko dugu.

Galdera guztiak ondo erantzuten dituzten parte-hartzaileen artean, Errigorako otar bat zozkatuko dugu, eta, zozketako parte-hartzaile guztien artean, Sorgin Dantzako hiru zapi.

Animatu zaitetz parte hartzera! Zorte on!



*Egun hauetan ondo pasa  
eta zaindu zaitexte!*

Kale Nagusia 40  
Tel: 943 36 39 64  
LASARTE-ORIA

Trasteleku eta  
gordelekuen alokairua  
Urnietan

TRASTELEKUAK

44€

2 m<sup>2</sup> / BEZa barne

GORDELEKUAK

97€

5 m<sup>2</sup> / BEZa barne

**barnE**

605713127

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA  
Bulegoa: Muebles Iturbe  
[barne.eus](http://barne.eus)

**ETXEZARRETA**  
HARATEGIA-URDATEGIA



**ETXEZARRETA HARATEGIA**

Bertako okela • Urdaitegia • Eramateko janaria

*Eskerrik asko lasarteoriatarrei  
guregan jarritako konfiantzagatik*

Hipodromo Etorbidea, 2 • Tel. 943 361 379 / 610 441 544 • LASARTE-ORIA

*Ondo pasa  
egun hauetan!*

# Uraitz, S.L.



**Igeltseritza  
Orokorra**

• BARRUKO BERRIKUNTZAK

• TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAI-  
LEAREKIN. VIPEQ F08 (EMULTSIOZ  
BOTATAKO ARTELAZKIA) ETA  
S.A.T.E. SISTEMA

• GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU  
GEHIGARRIRIK GABE

• BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA  
DUTXA EXTRALAUARENGATIK  
EGUN BAKARREAN

**Telefonoa**

**693 05 93 92**  
**943 56 66 40**

[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com)  
[www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)

**BULEGOA:**  
Geltoki kalea 15, LASARTE-ORIA

# Maitte

# **B**ETELU

*Ondo pasa egun berezi hauetan!*



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**



Aralar plaza 4 behea, Lasarte-Oria • Tel.: 943 36 48 86 • [www.mbetelu.com](http://www.mbetelu.com)

# Aurten ere, merezitako aitortza egin ezinik

Lasarte-Oriako Udalak zein Sorgin Jaiak makina bat eragile, norbanako, mugimendu sozial eta beste aitortu dituzte urtez urte, San Pedro Jaien garaian. COVID-19a dela-eta, omenduen zerrendak hutsik geratu dira 2020. eta 2021. urteetan

## Txintxarri

Gozatzeko, ospatzeko, hunkitzeko, aldarrikatzeko, protestatzeko, ligatzeko, dantzatzeko, abesteko eta beste hainbat gauzetarako garai ezin hobeak dira San Pedro Jaiak, eta baita urtez urte lan nekaezina egiten duten pertsona, eragile, mugimendu sozial eta abarrei aitortzak egiteko ere. Hala ulertu dute Lasarte-Oriako Udalak zein Sorgin Jaiak, eta omenaldi xume baina beroak egin izan dituzte, azken bi urteetan izan ezik, COVID-19ak eragindako krisia tarteko. Omenduen zerrenda gero eta luzeago horietan hutsik geratu dira 2020. eta 2021. urteetakoak.

Lasarte-Oriako Udala 1990. urtean hasi zen omenaldiak egiten, Sendoki elkartearekin elkarlanean. Urte horietan, aukeratutako herritarrak San Pedro egunean aintzatesten zituen, ekainaren 29an. 2012. urtetik aurrera, norbanakoak bainoago, eragileak izan dira haurren zein helduen txupinak jaurtitzeko gain, kultur etxean omenduak izan direnak.

Jose Antonio Iturbe izan zen aitortza jaso zuen aurreneko herritarra, eta atzetik etorri dira beste asko. Zerrenda oso luzea denez, paperean batzuk jaso ditugu, eta [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) web-orrian guzti-guztiak. Atari digital horretan kontsultatu ahalko

dituzue udalak aitortu dituen herritar eta eragile guztiak.

## Aitortzak eta aldarriak

Herriko jai alternatiboak antolatzen dituen eragileak, Sorgin Jaiak, makina bat omenaldi egin izan ditu baita ere, 2007. urtetik aurrera.

Alor ugaritan lanean jo eta ke ari diren eragileak ez ezik, mugimendu sozial desberdinak ikusarazi ditu, eta aldarrikapenerako ere baliatu ditu aintzatespenak, esate baterako, 2015. urtekoa: herriko langileriaren mugimendua eta krisiagatik atzerrira joan behar izan duten gazteak omendu zituen.

## Udalak omenduak

- **2019** Aterpea merkatari, ostalari eta zerbitzuetako komertzioen elkarteak.
- **2018** Erketz EDT.
- **2017** Semblante Andaluz.
- **2016** Landaberri ikastola.
- **2015** Ostadar SKT.
- **2014** Kukuka Antzerki eta Dantza Eskola eta Texas Lasartearra.
- **2013** Beltzak RT, Alboka abesbatza eta solaskideak.
- **2012** Danok Kide, Jalgune eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak.
- **2011** Daniel Adrian.
- **2010** Ama Brigitarren komentuko mojak.
- **2009** Jon Tecedor.
- **2008** Joxe Solano.
- **2007** Victor Sanchez.
- **2006** Felix Telleria.

*Lasarte-Oriako Udala 1990. urtean hasi zen omenaldiak egiten. Zerrenda osoa, 'www.txintxarri.eus' atarian.*

## Sorgin Jaiak omenduak

- **2019** Lasarte-Oriako pentsiodunen eta jubilatuen koordinakundea.
- **2018** Zabaleta Auzolan.
- **2017** Gure Esku Dago Lasarte-Oria.
- **2016** Sorgin Jaietan gozatu, parte hartu, eta lagundu duten pertsonak.
- **2015** Lasarte-Oriako langileriaren mugimendua eta atzerrira lanera joan behar izan duten gazteak.
- **2014** Ostadar SKT eta Xirimiri elkarteak.
- **2013** Lasarte-Oriako "inurri nekaezin eta isilak".
- **2012** Ostatu Berri taberna.
- **2011** Sorgin Dantza.
- **2010** 1936ko gerran hildakoen senideak.
- **2009** Munterri-AEK euskaltegia.
- **2008** Lolo eta Gas pailazoek jaurti zuten txupina.
- **2007** Lasarte-Oria Bizirik!

**%30eko  
DESKONTUA**  
eguzkitako  
bepaurrekoetan



# IRIGOYEN

## OPTIKA

Ondo pasa eta arduraz gozatu!



Largoenea 1, Lasarte-Oria - Tel. 943 37 10 47



**INPRENTA**  
offset eta digitala

**DISEINU GRAFIKOA**

**DISEINU EDITORIALA**

**aldizkariak**  
IRUDI KORPORATIBOAK

**kartelak**  
ESKU-ORRIAK

**katalogoak**  
AGENDAK EGUTEGIAK  
koadernoak

**PAPELERIA**  
liburuak



**antza**

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA · Tel. 943 370 738 · info@antza.eus · www.antza.eus

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



# Udalak omenduak



Ama Brigitarreko mojak (2010). TXINTXARRI



Danok Kide, Jalgune eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots (2012), Erketz EDT (2018) eta Aterpea elkarte (2019). TXINTXARRI



Felix Telleria (2006) eta Joxe Solano (2008). TXINTXARRI



Beltzak RT, Alboka abesbatza eta solaskideak (2013). TXINTXARRI

ARGAZKI ESTUDIOA · EZKONTZAK  
 UME ETA FAMILIA SESIOAK · BOOK  
 JAUNARTZEAK · HAURDUNALDIAK  
 JAIO BERRIAK · PUBLIZITATEA · BIDEOA

## Eztipphoto

WWW.EZTIPTHO.COM / WWW.LILIBAT.EUS  
 Golf enparantza 4 (behea). Lasarte-Oria  
 943 900 565 - info@eztipphoto.com

## Gora San Pedro Jaiak! Aupa Lasarte-Oria!

Patxi Larrañaga  
 Ana Iparraguirre  
 Naroa

Kale Nagusia 39 Lasarte-Oria  
 Tel. 943 37 26 68 - Faxa: 943 37 07 37

# Sorgin Jaiak omenduak



Lolo eta Gas pailazoak, 2008an. TXINTXARRI



Muntteri-AEK euskaltegia (2009) eta 36ko gerran hildakoei omenaldia (2010). TXINTXARRI



Goitik behera: langileria (2015), Zabaleta Auzolan (2018) eta pentsiodunak (2019). TXINTXARRI



2011ko omendua, Sorgin Dantza. TXINTXARRI



*Ondo ospatu egun berezi hauek! eta zaindu zaitetz!*

## ZUBIETA MOTOR

- Mekanika eta karrozeria konponketak
- Auto erdiberri, erabili eta OKM salmenta



Oria Etorbidea 4, 6. lokala - LASARTE-ORIA - Tel: 943 36 00 09 - Faxe: 943 37 26 89 - [zubietamotor@centrauto.es](mailto:zubietamotor@centrauto.es)

# Garcia

## AUTOBUSAK

Nafarroa etorbidea 32-2.A  
(Leku-Eder etxea) - ZARAUTZ

Tel: 609 479 478

[info@garciabus.com](mailto:info@garciabus.com) - [www.garciabus.com](http://www.garciabus.com)



*Ondo pasa egun hauetan  
eta zaindu zaitetz!*

- Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu aproposak
- Bestelako zerbitzuak

# LUIS CAR

## autobusak

*Ondo pasa eta zaindu zaitetz!*

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

Uzturre plaza 1, LASARTE-ORIA • Tel./Faxa: 943 36 63 16 • Mugikorra: 629 461 897 • luiscarbus62@hotmail.com

KUTXABANK  
TXARTELAK,  
NEUTROAK  
CO<sub>2</sub>an

# MUGI ZAITEZ VISA KUTXABANK EGIN.

EGIN EROSKETAK  
TXARTELAREKIN. PATINETE  
ELEKTRIKO BAT  
IRABAZ  
DEZAKEZU\*

# 30

patinete elektriko  
zozketatuko  
ditugu

\*2021eko ekainaren 15etik irailaren 15era arte.  
50 eurotik gorako metatutako erosketarako.  
Zozketaren oinarriak hemen: [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es)  
Kutxabank, SA. Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo. IFK: A95653077.  
Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua,  
BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.

# LASARTE-ORIA

Arreta profesionalena, herrian bertan!

# GREMIOEN GIDA



Herriko GIDA KOMERTZIALA  
sarean ikus dezakezu  
[www.txintxarri.eus/gida](http://www.txintxarri.eus/gida)



Elektrizitatea



Iturgintza



Kristaldegi eta leihoak



- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA  
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21  
600 857 586 - [www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)  
[tienda.electricidadarregui.com](http://tienda.electricidadarregui.com) (on-line denda)



**ILLARRETA**  
ITURGINTZA  
IGELTSEKUNTZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKUNTZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

**BULEGOA:** Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria  
Tel. 606 686 615 eta 943 36 17 52.  
**TAILERRA:** Oialume bidea 24, Astigarraga  
[info@illarreta.com](mailto:info@illarreta.com)



**ANORGA TXIBI S.L.**  
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA  
943 37 17 33 • 610 45 93 45  
[www.cristaleriaanorgatxiki.com](http://www.cristaleriaanorgatxiki.com)



**ISU**  
PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK

Pertsianak, motorizazioak,  
barandak, toldoak, armairuak,  
eltxo sareak eta gehiago...

Kale Nagusia, 46 behe. LASARTE-ORIA  
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala USURBIL

☎ 943 366 495  
✉ [ventanas\\_isu@hotmail.com](mailto:ventanas_isu@hotmail.com) 



Barne-Diseinua



Igeltseritza



SUGATE  
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5  
Lasarte-Oria  
Tel: 943 361 471  
[www.sugatecocinas.com](http://www.sugatecocinas.com)



**ANTONIO ARREGUI, S.L.**  eraikuntza materialak

- ERAIKUNTZA MATERIALAK OROKORREAN
- ZERAMIKA
- SANITARIOAK
- KOMUNNEKO KONPLEMENTUAK

[www.gamma.es](http://www.gamma.es)

<b>BILTEGI OROKORRA</b> Oria Etorbidea, 6 20160 Lasarte-Oria Tel.: 943 36 64 73 <a href="mailto:aarreguis@gmail.com">aarreguis@gmail.com</a>	<b>ERAKUSKETA</b> Goikale, 2 20160 Lasarte-Oria Tel.: 943 36 59 47 Faxa: 943 36 59 47
--	---



**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 059 392 - 943 566 640  
[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) - [www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)  
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria

Gida honetan  
azaldu nahi  
baduzu jar  
zaitez gurekin  
harremanetan

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:  
943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66 | [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)



Lasarte-Oria EH Bilduko Herri Batzarra, ekainaren 22an, Mirentxuko atarian. IDO PHOTOGRAPHY

# Proiektu finkoa eta herritzailea

Kongresua amaitu berri du EH Bilduk, eta herrian, aste honetan burutu duten Herri Batzarrean berretsi dute Lasarte-Oriako eraketa prozesua. Asier Gorostegi Aliri herritarra izendatu dute Tokiko Arduradun Politiko, eta Uxue Loinaz Urruzola ordezkari

Hamar urte bete berri ditu EH Bildu alderdi politikoak, hamar urte baino ez, eta ikasturte honetan burutu du II.Kongresua. Ikasturte berezia izan da eta gogotsu egin dute lan herriko EH Bilduko kideek. Legegintzaldi berria abiatzarekin batera, Lasarte-Orian eraketa prozesu bati ekin zioten, eta ekainaren 22an burutu zuten Herri Batzarrean berretsi zuten eraketa, kongresuaren amaierarekin bat eginez. Eraketa prozesu horren bidez oinarria zabaldu eta Lasarte-Oriako EH Bilduren proiektua finkatzea izan dute helburu. Talde zabala eta parte-hartzailea osatu dute, eta bertan parte hartzeko moduak ere askotarikoak direla nabarmendu dute, kide bakoitzak

erabaki dezan nola eta non kokatu nahi duen haren burua proiektuan. Gobernantza eredu berrietan ari dira lanean, eta horretarako, oinarria eta herritarren inplikazioa ezinbesteko dira.

**Udalgintza Herrigilea**  
Partaidetzan oinarritzen diren egiteko modu eta kudeaketa

**"UDALGINTZA HERRIGILEAREN FILOSOFIAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU LASARTE-ORIA EH BILDUTIK"**

ereduen aldeko apustu irmoa egin dute. Udala, herri eragileak eta herritarrak hartu emanean, bakoitza dagokion arduratik eta herritarrek dituzten beharretatik lan egin nahi dute. Lasarte-Orian bizi garen guztiok komunitate bera osatzen dugula abiapuntu gisa hartuta, guztion ongizatea bermatuko duten politika publikoak abian jarri nahi dituzte: gure muinetako bat politika egiteko modua da; hau da, herritarrekin lan egitea.

**Bilkide kanpaina**  
Kongresuarekin batera, *Bilkide* kanpaina egin dute. Jendearren inplikazioa eta konpromisoa behar dira denon artean herria egiteko. Eta horretarako, askotariko aukerak eskaini

dituzte, norberak ahal eta nahi duen moduan egin diezaion proiektuari ekarpena, ekarpen ekonomikoa zein ekarpen pertsonala: bilkide, inskribatu edota bilguneko partaide gisa.

**Legegintzaldi erdiko balantzea**  
Burutu berri duten Herri Batzarrean orain arte egindako lanaren balorazioa ere egin dute. Pozik daude egindako lanarekin. Udalgintzari dagokionez, oposizio arduratsua eta eraikitzailea egiteaz gain, Udal Gobernu eta gainerako alderdiekin elkarlanean aritu dira, eta horretarako prestutasun osoa dute. Poliki bada ere, egindako lana fruituak ematen ari dela balioztatu dute. Herrigintzari

**"ZER-NOLAKO LASARTE-ORIA NAHI DUGUN HAUSNARTU ETA SORTZEKO BIDEARI EKIN DIOGU 'HERRIGINTZEN' DINAMIKAREN BIDEZ"**

**"EZBERDINEN ARTEAN LAN EGIN BEHAR DUGU, IREKITASUNA DUGU DENEKIN HITZ EGITEKO; LASARTE-ORIAKO ANIZTASUNAREKIN EGIN NAHI DUGU BIDEA"**

**"ARRETA BEREZIA JARRI DUGU EGITEKO MODUETAN; EGUNGO GOBERNATZEKO MODUEK EZ DUTE FUNTZIONATZEN; IRAUNGITA DAUDE"**

begira ere, argi dute herrigintza dela elkargune nagusia. *Herrigintzen* dinamikaren lehen saioekin pozik daude, balorazio oso positiboa egin dute, Lasarte-Oria EH Bilduren herri proiektua sendotu eta finkatzeko bide aberasgarri eta eraginkorrari ekin diotela baloratu dute. Bidea, ordea, hasi besterik ez da egin eta hemendik aurrera ere, *Herrigintzen* dinamikarekin jarraituko dute: elikatu, ikasi, hausnartu eta sortzen.



Asier Gorostegi Aliri Lasarte-Oria EH Bilduko Arduradun Politikoa eta Uxue Loinaz Urruzola ordezkaria. IDO PHOTOGRAPHY

# Eskolako materiala erosteko laguntzak abian

2021-2022 ikasturterako eskola-materiala erosteko dirulaguntzak martxan jarri ditu udalak. 15.000 euro bideratuko dituzte horretara, eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Erdi-mailako Lanbide Heziketako ikasleei zuzenduta daude

## Txintxarri

Astearte goizean aurkeztu dituzte Agustin Valdivia Lasarte-Oriako alkateak eta Maite Iglesias Hezkuntza zinegotziak 2021-2022 ikasturte berrirako eskola materiala erosteko dirulaguntzak. Maite liburu dendan egin dute aurkezpena, bertako jabe Luis Sierra ondoan izan dutelarik. Jakinarazi dute 40.001 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten familiei zuzenduta daudela aipatu dirulaguntzak.

Programaren helburua da eskola-adieneko haurrak dituzten familiei laguntzea, COVID-19ak eragindako pandemia eta krisi garai hauetan. Horrez gain, nola ez, eskolako materiala Lasarte-Oriako herriko dendetan eros dezaten sustatzea.

Diruz lagunduko den materiala izan daiteke idazmahaiakoa, eskolako jarduerarako behar diren arropak, optometriako materiala, kirolerako materiala edo jarduera artistikoetarakoa. Aurtan, "arrakala digital handia" dagoela frogatu dutenez, laguntzen barruan sartu dute, baita ere, material informatikoarekin erlazioatutakoa, testuliburuez gain: "Urrats berri bat da laguntza horiek baliagarriago egiteko".

Honako hauek dira ikasle eta familia-unitate bakoitzeko jaso



Alkatea, Hezkuntza zinegotzia eta Maite liburu dendako jabea. TXINTXARRI

daitezkeen diru-laguntzak: 25.000 eurotik beherako diru-sarrerentzat: 110 euro; 25.001 eta 33.000 euro bitarteko diru-sarrerentzat: 90 euro; eta 33.001 eta 40.000 euro bitarteko diru-sarrerentzat: 50 euro.

Laguntza jasotzeko aukera izango dute lehen eta bigarren hezkuntzako derrigorrezko mailatan eskolatutako adingabeak dituzten familiek. Haurrak ez du zertan herriko ikastetxeren bateko ikasle izan; berdin da zein udalerritan eskolatua dagoen. Justifikatu ahal izango diren erosketak 2021ko uztailearen 1etik irailaren 30era bitartean egindakoak izango dira, eta

kontutan izan behar da baita ere, laguntza berarentzat eskatzen duen ikasleak eta haren eskatzaileak 2021ko urtarrilaren 1etik etenik gabe eroldaturik egon beharko dutela.

Behin erosketak eginda, laguntza jaso ahal izateko, eskaerari erantsi beharko zaizkio herriko dendak emandako tiketen edo faktura sinplifikatuen jatorrizko tiketak, eta, tramitazioa on-line egiten bada, agiri horiek eskaneatuta eta elektronikoki behar bezala sinatuta erantsi beharko direla azpimarratu dute udal ordezkariak. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 1etik urriaren 1era artekoa izango da.



Aterpeko kideak eta udal ordezkariak, egitasmoa aurkezten. TXINTXARRI

## 'Eskuratu 1.000 euro' kanpaina uztailearen 1ean hasiko da

Aterpea elkarteko zenbait komertzioetan erosiz gero, 10 euroko ehun bonu irabazi ditzake bezeroetako batek

## Txintxarri

Aterpea merkatarien, ostalarien eta zerbitzu-enpresen elkarteak *Eskuratu 1.000 euro* kanpaina jarriko du martxan uztailearen 1ean, ostegunez. Egun horretan hasi eta hilaren 16ra arte (ostirala), egitasmo horretan parte hartzen duten komertzioetan erosten duten bezeroak zozketa batean sartuko dira. Establezimenduetako jabeek papertxoak emango dizkiete herritarrei, horiek bete eta kutzatxo batean sar ditzaten. Aterpeko lehendakari Miguel Angel Prietok zehaztu duenez, elkarteko kideek uztailearen 19an eta 20an jasoko dituzte kaxak, eta 21ean egingo dute zozketa, asteazkenarekin, Mirentxun.

Zer irabazi dezake kanpainen parte hartzen duen bezeroetako batek? Aterpeko komertzioetan gastatzeko 10 euroko ehun erosketa-txartel, alegia, 1.000 euro. Irabazleak uztailearen 28an

xahutu beharko ditu bonu horiek, hiru ordutan, 17:00etatik 20:00etara. Aterpeko kide batek lagunduko du bezeroa, eta autoan joango da berak aukeratutako dendetara. "Establezimendu bakoitzean, asko jota, 100 euro gastatu ahaliko ditu saridunak; horrela, bermatzen dugu gutxienez hamar negozio izango direla egitasmo honen onuradun".

## Opari-txartelak

Prietok jakinarazi du zenbait komertzioetan opari-txartelak emango dituztela beste egun batean gastatzeko: adibidez, ile-apaindegiek eta estetika zentroek. "Uztailearen 28an ez lioke denbora emango irabazleari".

Udalaren izenean Agustin Valdivia alkatea eta Nuria Fernandez Sozioekonomia saileko burua joan dira. Kanpainen parte hartzeko deia egin diete lasarteoriarrei.

## Udala, klima eta energia plana egiteko ere herritarrekin lanean

Ingurumen eta energia plana diseinatzeko herritarrekin egin nahi du lanketa udalak, parte-hartze saio bidez

## Txintxarri

Klima eta energia plana diseinatzeko, herritarren parte hartzea bermatu nahi du Lasarte-Oriako Udalak. Horretarako, datorren asteazkenean, ekainaren 30ean gai hori lantzeko "saio

irekia" deitu dute, Manuel Lekuona Kultur Etxean, 18:00etan.

Klima eta energia plana osatu aurretik, diagnosi bat egiteko, online galdetegi bat zabaldu zuen udalak. Lanketa horrek, hamazazpi pertsonen parte

hartzea izan duela jakinarazi dute.

Saio irekian, iraganeko, gaur egungo eta etorkizuneko klima eta energia egoeraz hitz egingo dela iragarri dute. Horrekin batera, dagoeneko gertatzen ari den aldaketa klimatikoa gutxitzeko hartu beharreko zenbait jarreraren inguruan solastuko dute.

Saioan parte hartzeko [partehartzea@lasarte-oria.eus](mailto:partehartzea@lasarte-oria.eus) helbidera idaztea ezinbestekoa da.



Ingurumen teknikaria, alkatea eta Parte-hartze zinegotzia, hurrenez hurren. TXINTXARRI

# Gipuzkoako narrazio laburrik onena idatzi du

Coca-Cola Narrazio Laburren lehiaketan parte hartu du Agatha Sancho herritar gazteak. COVID-19a dela-eta, aurtengo edizioan DBH 2. eta 3. mailako ikasleek parte hartu dute; epaimahaiak 13.683 kontakizun jaso ditu, eta lehen saria eman dio lasarteoriatarrenari

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Agatha Sancho herritarrek Oriarte BHI institutuan ikasten du, eta TXINTXARRI-ri kontatu dionez, idaztea ikaragarri gustuko du; "oso garrantzitsua" da alor hori bere bizitzan. Coca-Cola Narrazio Laburren lehiaketan parte hartzeko aukera galdu zuela uste zuen, DBH 2ko gazteak aritu daitezkeelako, eta berak iaz gainditu zuelako maila hori; COVID-19a tarteko, iazko edizioa bertan behera utzi behar izan zuten. "Etsigarria izan zen iazkoa; ez dut inoiz ahaztuko sentitu nuen poza, aurtun parte hartu ahalko nuela jakin nuenean". Aurtengo lehiaketa digitala izan da, eta DBH 2. zein 3. mailako ikasleek idatzi dituzte kontakizunak, 800 hitzekoak gehienez. Sanchok jakinarazi duenez, epaimahaiak 13.683 lan jaso ditu.

Kontakizun guzti horietatik, bakar batek irabazi zezakeen Gipuzkoako lehen saria. Sanchoren zorionerako, bera



Herritarra, pozarren sariarekin. AGATHA S.F.

izan da irabazlea; ekainaren 11n jakinarazi zioten. "Gala digitalean, nire izena esan zutenean, euforia ikaragarria sentitu nuen; une hori betirako grabatuta geratu da nire garunean". Gogoratu du "urduri" jarri zela idatzizko

frogaren aurretik. "Lehiaketa hori pozaren eta urduritasunaren arteko nahasketa izan zen".

## Beste esperientzia batzuk

Antzeko albiste pozgarriak jaso izan ditu Sanchok lehenago ere. Duela bi urte, esate baterako, Lasarte-Oriako Literatur Lehiaketa irabazi zuen, eta baita Murtziako Barrio del Carmen kontakizun txapelketa ere.

Coca-Cola lehiaketan parte hartu zezakeela jakin bezain laster, irakasleari esan zion. "Hori egin gabe, ez dizute lehiatzen uzten". Kontakizun laburrei buruzko kompetizio literarioa izanik, 800 hitz baino gutxiagoko istorioa kontatu behar zuen herritarrek. Bere sormen estimulua izan zen Alvaro izeneko nerabe bat deskribatzea.

DBHko bigarren maila egingo duen edozein gazteri gomendatzen dio lehiaketan parte hartzea: "Bizitza osorako oroitzapenak oparitzen dizkizu".



Herritar ugari gerturatu ziren Mercero aretorea ekainaren 17an. TXINTXARRI

## Izadi Gurasoekin Etxera plataformako kideekin solasean

Ibilian-ibilian dinamikako bigarren saioa burutu du Lasarte-Oriako Sarek: solasaldia eta dokumentala

### Txintxarri

*Izadi. Espetxean jaiotako atzera kontaketa* dokumentala ikusteko aukera izan zuten lasarteoriatarrek ekainaren 17an. Lasarte-Oriako Sarek, Ibilian-ibilian dinamikaren baitan antolatutako duen bigarren ekimena izan da.

Maria Lizarraga eta Iñigo Gutierrez euskal presoaren alaba da Izadi. Espetxean jaio eta bertan bizi da jaio zenetik, baina hiru urte beteko ditu datorren urtarrilean, eta gurasoengandik banatu egingo dutela salatu du Izadi Gurasoekin Etxera plataformak; 2019an sortu zuten.

Eragile horretako bi kideekin solastu ziren lasarteoriatarrek; Itxaso eta Oihana Torregrosa ahizpekin. Izadi eta gurasoak bizitzen ari diren gain, plataformaren aldarrikapenen berri eman zuten.

### Urtarrilera bitarteko erronkak

Bi aldarrikapen nagusi egingo ditu Izadi Gurasoekin Etxera plataformak hemendik urtarrilera bitarte. Lehena haurrari berehala kalera irteten utz diezaiozela, eta urtarriletik aurrera bere gurasoekin egoteko duen eskubideari irtenbide bat ematea.

## Murrizketek justifikaziorik ez dutela salatu dute garbitzaileek

ESK eta ELA sindikatuek deituta, elkarretaratzea egin dute udal eraikinak garbitzen dituzten zenbait beharginek

### Txintxarri

ESK eta ELA sindikatuek deituta, udal eraikinak garbitzen dituzten langileak kalera atera dira berriro, lanaldi duina aldarrikatzeko, eta Lasarte-Oriako Udalari eskatzeko murrizketarik ez egitea lanaldietan. Kontzentrazioan erakutsi duten afixan honakoa irakur zitezkeen: *Lasarteko udal garbiketa: murrizketarik ez! Zerbitzu duina*. Elkarretaratzea egin dutenek salatu dutenez, garbiketa zerbitzua arautzen duten pleguetan 16,5 ordu

gutxiago jaso direla ikastetxeak garbitzeko.

Garbitzaileek deitoratu dute pleguetan jasotako zerbitzuak eta enpresa arduraduna eskaintzen ari denak ez dutela zerikusirik. Jakinarazi dute Udalari abisatu zaiola horrek nabarmen eragiten diola zerbitzuari eta baita langileei ere, baina haiek "entzungor" egiten dutela, eta auzia konpontzeko "borondate politikorik ez dutela".

"Pandemia egoera betean gaude, eta hezkuntza zentroak



ESK eta ELA sindikatuek deitutako elkarretaratzea, ekainaren 18koa. TXINTXARRI

garbitzera ordu gutxiago bideratzeak ez du justifikaziorik", nabarmendu dute elkarretaratzera bertaratu diren langileek. "Beharginon lanaldia duina izatea nahi dugu, eta ikasleei zein herritarrei

eskaintzen diogun zerbitzua ere halakoa izatea nahi dugu".

Udal eraikinetako garbitzaileek eta sindikatu etako ordezkariak ez ezik, Lasarte-Oriako EH Bilduk ere bat egin du ekitaldiarekin.

## Eremu berdetik gero eta gertuago dago intzidentzia-tasa

Ekainaren 23ra arteko datuak eskuetan -horiek izan dira aldizkari honek kontsultatu ahal izan dituen azkenak edizioa itxi aurretik-, Lasarte-Oriako intzidentzia-tasa metatua 73,51 izan da. Eremu berdetik oso gertu dago zifra hori; 100.000 biztanleko batez beste 60 kasu edo gutxiago dituzten udalerrietako datuek dute kolore hori. Azken zazpi egunetan zazpi positibo baieztatu dituzte gure herrian.

Beterri-Buruntza eskualdeko udalerrietatik, gaur-gaurkoz, hiru daude eremu berdean (Andoain, Hernani eta Usurbil), eta horian beste hiruak (Astigarraga, Lasarte-Oria eta Urnieta).

# Onena eman dute oholtza gainean

Kukuka Dantza eta Antzerki Eskolako ikasleek agur esan diote ikasturteari. Itxiera gisa, hiru saioko jaialdia egin dute asteburuan Oriarte-Landaberriko jolastokian. Hilabeteotan landutakoaren lagin bat erakutsi diete ikustera joandako dozenaka lagunei

## Maitane Aldanondo

Hamabostaldirik ezin izan du egin aurten Kukukak, baina ikasturte amaierako emanaldiei ez die uko egin. Azken hilabeteetan zirkuan, antzerkian eta dantzan landutakoa erakutsi dute asteburuan Oriarte-Landaberriko jolastokian egindako hiru saiotan. Ordubete inguruko luzapena izan du emanaldi bakoitzak eta antolatzaileek jarritako 350 eserlekuetako ia guztiak izan zuten nork bete.

Ekainaren 18an zirkuan eta antzerkian aritu diren Lehen Hezkuntzako haurren txanda izan zen. Zapi, plater, uzta eta beste zenbait elementu baliatzeko duten abilezia erakutsi zuen lehen taldeak, banaka eta elkarrekin zenbait ariketa eginda. Ondoren, ipuinen mundura jauzi egin eta Txanogorritxu, hiru txerritxoak eta beste pertsonaia batzuek ihes egin zioten otsoari, motor gainean joan arren. Eta hala, denetariko istorioak kateatzen joan ziren

taula gainean. Besteak beste, denboran joan-etorriak, espaziora bidaiak, superheroien kontakizunen zentzugabekeriak, amets bat dutenei ziria sartzen dien sendalaria...

Irakasleek gertutik jarraitu zuten oholtza gainean zeudenen jarduna, behar zutenean jarraibideekin lagunduz. Beraien txanda noiz helduko zain zeudenek edo egin beharrekoa egin zutenek, albo batetik adi jarraitu zuten kideen lana, eta gainerako ikusleek bezala, gogotik txalo egin zieten amaitzean.

## Landutakotik inprobisaziora

Ekainaren 19ko goizean, berriz, dantza taldeen txanda izan zen.

## ANTZERKI, DANTZA ETA ZIRKU EMANALDI LABURRAK EGIN DITUZTE IKASLE GAZTE ETA HELDUEK

Euskal dantzako ikasle gazteek hasi zuten emanaldia. Talde jendetsuena dute eta hiruzpalau dantza egin zituzten elkarrekin. Pare bat irakasle izan zituzten laguntzaile, eta aurrerago helduek egin zuten dantzarako beroketa gisa balio izan zien. Adinean gora egin, eta gazteen txanda heldu zen jarraian. Eskuetan zituzten erretilu modukoak baliatuta, pieza bat dantzatu zuten.

Ondoren, estiloa aldatuz, euskal dantza sorkuntza eta dantza garaikidearen alorrean murgildu ziren. Batzuk biziak eta indartsuak izan ziren, ikusleen harridura eraginez; beste batzuk, aldiz, bereziak; oinetakoei eta oihal gorri bati tiraka egindakoa bezala.

Arratsaldean antzerkia bueltatu zen Oriartera. Oraingoan, DBHko ikasleek eta helduek izan zuten protagonismoa. Lehenen lanetan, musikak, gazteen inguruko estereotipoek eta, nola ez, falta ezin zen koronabirusak bere tartea izan zuten. Helduek, berriz,



Antzerkian zein dantzan egindako ahalegina erakutsi zuten haurrek. TXINTXARRI



Zabaleta eta Atsobakar auzoetako ustezko ordezkariak inprobisatzen aritu ziren. TXINTXARRI

inprobisatu egin zuten. Zabaleta eta Atsobakar auzoetako hiruna ordezkariaren azalean jarri, eta aurrez aurre aritu ziren babes ofizialeko pisu bat eskuratu nahian. Horretarako, publikoak aukeratutako elementuekin istorio bat asmatu eta film bat antzeztu behar izan zuten. Besoak

altxatuz bozkatu zuten publikoak ariketa bakoitzeko onena eta puntu bana eman hirukote bakoitzari. Berdinketa hausteko beste proba bat egin beharrean, aurkezleak etxebizitza berarentzat hartzea erabaki zuen. Seiak ihesi zihon aurkezlearen atzetik korrika amaitu zuten emanaldia.


## Barrea protagonista izan da asteburuko bi emanaldietan

Oscar Terol eta Sara Escuderoren bakarrizketek eta The Chancettes taldearen ikuskizunek egitekoa bete dute

### Txintxarri

Kultur agenda erakargarria prestatu du Lasarte-Oriako Udalak ekainerako, eta umoreak tarte berezia du ekimen zerrenda horretan. Barre egiteko gogoz zeudenek bi aukera izan zituzten, kultur etxean.

Larunbatean Oscar Terolek eta Sara Escuderok izan zuten algarak pizteko ardura eta aise lortu zuten euren bakarrizketekin. Donostiarra irten zen lehenik agertokira, gitarra eskuetan. Bere itxuraren gorabeherak itxialdiaren ondorioei heltzeko



Oscar Terol umoregilea. TXINTXARRI

zubi moduan erabili zituen. Hala, pandemiari eta gaurkotasunari erreposoa egin zion umore ironikoz eta bere hiru kanta abestuta. Sara Escuderok ere bere buruaz barre eginez bilatu zuen ikusleen konplizitatea. Pasadizoetan oinarritutako emanaldia izan zen, ustez bizitako zenbait egoera josita.

Ekainaren 20an The Chancettes taldeak hartu zuen umoregileen lekukoa, *AntiCoronaCAVA.ret* ikuskizunarekin. Dantza, musika umorea eta akrobaziak uztartu zituen laukoteak bere proposamen probokatzailan, eta bertaratutakoek bat egin zuten piztutako festa giroarekin. Agertokitik eskatutako guztiari erantzun zioten: txalo egin, abestu, dantzatu... Barre egitea, berriz, ez zuten galdegin beharrik izan artistek.



TXINTXARRI

## Herriko ofizioak, pantailan

Oriarteko DBH4 ikasleek Zinema (H)abian ekimenean aurten egindako *Lan-artean* dokumentala aurkeztu zuten ekainaren 18an kultur etxean. Pantaila handian ikusi eta zenbait zehaztapen eman zituzten zinemagile gazteek. Ez beraien bakarrik, ordea. Izan ere, pandemia dela-eta iaz erakusterik izan ez zuten *Oroitzapen argiak* lanaren egileek ere aukera bera izan baitzuten.





Euskal Eskola Publikoaz Harro plataformaren egitasmoarekin bat egin dute Burunzpe, Landaberri eta Oriartekide guraso elkarteek. TXINTXARRI

### Iñigo Gonzalez Sarobe

Euskal Eskola Publikoaz Harro topagunearekin –aurrerantzean, EEPH– bat egin dute Lasarte-Oriako hiru ikastetxeetako guraso elkarteek –Burunzpek, Landaberri eta Oriartekidek–, eta herri mailako plataforma sortu dute. Zer landu nahi dute? Zer aldarrikatu nahi dute, zer ikusarazi? Eragilearen izenak ematen ditu pista batzuk, baina egitasmoaren nondik norakoak azaltze aldera, eta herri mailan ezagutzera emateko asmoz, plataformako ordezkari batzuk, Bea Egizabal eta Juan Luis Eizmendi, TXINTXARRI-rekin elkartu dira.

EEPH topagunea Gasteizen sortu zen, eta badaramatza ikasturte batzuk euskal eskola publikoaren balioa aldarrikatzen; horrekiko harrotasuna adierazten eta zabaltzen. Hezkuntza publikoa "gizarteak historian zehar irabazitako lorpenik handienetako bat" dela azpimarratu dute behin eta berrito. Urtez urte, gero eta eragile eta ikastetxe gehiagok bat egin dute topagunearekin, eta tokian tokiko plataformak eratu dituzte, maila lokalagoan lan egiteko eta eragiteko. Horieta bat da Lasarte-Oriakoa. Egiten ari direnaren gaineko informazio gehiago nahi duenak, atari digital hau bisitatu dezake: <https://sites.google.com/view/eephlasarte-oria>.

Arestian esan bezala, Lasarte-Oriako hiru ikastetxeetako guraso elkarteek bat egin dute egitasmo horrekin. Egizabalen eta

# Euskal eskola publikoaz harro

Euskal Eskola Publikoaz Harro topagunearen aldarrikapenekin bat egin dute Lasarte-Oriako hiru ikastetxeetako guraso elkarteek. Hezkuntza sistema publikoaren balioa aldarrikatu dute, eta nabarmendu dute eredu horri "baliabideak" eman behar zaizkiola

Eizmendiren hitzetan, "pozgarria" da hiruek babestu izana EEPH topagunearen lana eta aldarriak, eta hezkuntza sistema horrekiko harrotasuna adierazi izana.

### Ezaugarriak eta beharrak

Hauek dira EEPH topaguneak ematen dituen zergatiak, euskal eskola publikoaz harro egoteko: "denontzat eta denona" dela; "gizarte kohesioa" bermatzen duela; "hezkidetzan eta aniztasunean konprometitua" dagoela; laikoa dela; "euskalduna eta euskalduntzen duena" dela; eta "doakoa eta unibertuala" dela. Hitz gutxitan

**"HEZKUNTZA SISTEMA PUBLIKOAK BALIABIDE GEHIAGO BEHAR DITU, INDARTU EGIN BEHAR DA"**

esanda, "altxorra" dela hezkuntza sistema publikoa, "oztopo guztien gainetik" eraikia izan dena. Hori mantentzeko eta indartzeko, ordea, "baliabideak" falta direla salatu du EEPHk. "Zerbitzu publikoak, eta bereziki, eskola publikoa, gobernuen jomugan daude; privatizatzeko politika garbia gauzatu da hezkuntzan ere". Topaguneak azaldu duenez, murrizketak ezarri zaizkio sare publikoari, eta irakaskuntza ekimen pribatu guztiei kontzertazioak eman zaizkie. "Ondorioz, hezkuntza sistema duala [publikoa eta pribatua edo itundua] gauzatu da, ikasle guztiei aukera berberak eskaintzen ez dizkiena; sistema diskriminatzaile eta segregatzailea, diru publikoarekin finantzatuta".

EEPH topaguneak datu batzuk eman ditu horren gainean, EAEko Eskola Kontseiluaren *Euskadiko hezkuntza sistemaren egoerari*

*buruzko txostena 2017-2019* dokumentutik. Esate baterako, maila sozioekonomiko baxuena duten ikasleak sare publikoan daudela. Jantokiko beken kopurua bikoitza da sare publikoan: Haur Hezkuntza publikoan, ikasleen %28,1 dira bekadunak; pribatuan, berriz, %10,2. Lehen Hezkuntza publikoan, %34,5; pribatuan, %12,5. DBHn murriztu egiten da aldea: publikoan %16,8 dira bekadunak eta %8,9 pribatuan. Datu gehiago: jatorri atzerrikako hiru ikasletik bi sare publikoan eskolaratzen da (%67), eta bestea pribatuan (%33). Horrez gain, azken lau

**EEPH TOPAGUNEAREN HURRENGO MUGARRIA UDAZKENEAN EGINGO DUEN MOBILIZAZIOA IZANGO DA**

urteetan gela itunduen kopurua %4,6 jaitsi den arren, finantzazioak %12,95 egin du gora.

Lasarte-Orian, gaur-gaurkoz, ez dago publiko-pribatu dikotomia hori, ikastetxe guztiak –Landaberri-Garaikoetxea, Sasota-Zumaburu eta Oriarte– publikoak direlako. "Beste herri batzuetan ez bezala, guk ez dugu zuzenean konfrontazio hori bizi", azaldu dute Egizabalek eta Eizmendik. Herri mailako plataformaren helburu nagusiak dira EEPHren lana eta aldarriak Lasarte-Orian zabaltzea, eta gizarteak horrekiko duen atxikimendu maila areagotzea. Edonola ere, Lasarte-Oriako ikastetxei "baliabide gehiago" eman behar zaizkiela adierazi dute. "Sistema publikoa indartu egin behar da, ez dugu hiltzen utzi behar; nahi eta behar dugun hezkuntza ereduaz hausnartu behar dugu".

### Hezkuntza Lege berria

Lasarte-Oriako plataformako kideek azaldu dutenez, Hezkuntza Lege berria prestatzen ari da Eusko Jaurlaritzak. "Hezkuntza sistema txukuntzera datorrela saldu dute, baina, itxura guztien arabera, zentro itundu-pribatuen mesederako izango da soilik; segregazio bidea sakontzeko. Hori zuzitzeko, hezkuntza sistema publiko bati buruz hitz egiten dute, eta ez eskola publikoaz". Bestela esanda, ikastetxeen jabetza mota batekoa edo bestekoa izan arren, sistema publikoaren kideetat hartuko litzukete guztiak, plataformako kideen esanetan.

Itunen negoziaketaz ere jardun dira. Jakinarazi dute 6 urterako akordioa egin nahi duela Eusko Jaurlaritzak, 2022tik 2028ra artekoa. "Ikastetxe pribatuekin itunak sinatuko lirateke, eta hamarkada ia horretan guztian ez litzateke berriz negoziatuko kontu hori. Bien bitartean, jaiotzasak behera doaz, eta ikastetxeetan lerroak kentzen ari dira. Itundutako eskolak blindatzen badituzte, murrizketak non egingo dituzte? Sare publikoan".

Dagoeneko amaitu den ikasturte honetan, topaguneak zenbait ekintza burutu ditu. Martxoan Eusko Legebiltzarrerara joan ziren zenbait ordezkari, talde politikoei aldarriak entzun zituzten. Horrez gain, datorren udazkenean begira mobilizazioa prestatzen ari dira, *Hezkuntza publikoaren alde. Privatizazioari ez!*; topagunearen "hurrengo mugarrira" izango da.

# Familiartean ere, euskaraz

Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak elkarrekin kudeatzen dute Gurasoleku izeneko egitasmoa. Horren barruan sartzen dira Gurasotegi, Gurasolandia eta Gurasolagun. 2020-2021 ikasturtean adar berri bat sortu dute, Trukelandia izenekoa

## Txintxarri

Gurasoleku egitasmoaren xedea euskararen transmisioa indartzea da, kasu honetan, familien bidez. Kideei ikusarazi nahi zaie oso garrantzitsua dela familiartean euskaraz hitz egitea hautatzea. Horren barruan kokatzen dira Gurasotegi, Gurasolandia eta Gurasolagun. Lasarte-Oriako Udalak, Muntteri-AEK euskaltegiak (honek, Gurasotegi) eta Ttakun Kultur Elkarteak kudeatzen dituzte horiek guztiak, elkarlanean. Proiektua berri samarra da, eta gero eta indar handiagoa hartzen ari da Lasarte-Orian. Mahai inguru bat eratu da, gaia lantzeko: Udaleko Euskara Zerbitzua, Ttakun KE, Sasoeta-Zumaburu eta Landaberri-Garaikoetxea ikastetxeak eta bietako guraso elkarteak, Andre Joakina Enea haurreskola, eta Muntteri-AEK biltzen dira.

2020-2021 ikasturtea ezohikoa izaten ari da, eta antolatzaileentzat ez da erronka makala izan aipatu proiektu horiek guztiak burutzea. Gurasolandiaren, aisialdia hartuta abiapuntutzat, euskara lantzeko espazioak bideratzea da helburua, haurrak eta gurasoak bertan jolas

daitezen, euskaraz. 2019-2020 kurtsoan, pandemia lehertu zenean, 2 eta 5 urte adin tarteko parte-hartzaileen (haurren eta familien) arteko harremana mantendu egin zen, eta jarduera oso entretenigarriak egin zituzten.

Hori aintzat hartuta, "zalantza beteta" hasi zuten aurtengo ikasturtea antolatzaileek, baina hilabeteak aurrera joan ahala, guztiak uxatu dituzte. Amaierara iritsi ostean, balorazioa egin dute: "Ehunka lagunek parte hartu dute astero; implikazioa bikaina izan da". Hori guztia biribiltzeko, ekainaren 26an burutuko dute azken ekintza, parte hartu duten familia guztiak batera: txorientzako hazitegiak egin eta herrian barrena jarriko dituzte.

## Adar berria, Trukelandia

Gurasolandia egitasmoari adar bat gehitzea erabaki dute Ttakun KEk eta udalak: Trukelandia. Izenak berak adierazten duenez, trukean oinarritutako egitasmoa da. 2 eta 5 urteko haurrentzat eta haien gurasoentzat. Hilabetean behin, Gurasolandiako hitzordua baino bi aste geroago, modu autonomoan hiru familia elkartu,

eta bakoitzak ezagutza bat partekatuko du besteekin. Irakatsiko duten hori, askotarikoa izan daiteke: errezetak, esperimentuak, abesti jolasak, ipuinak... Martxoan aurkeztu zuten proiektua kultur etxean, Porrotx pailazoaren laguntzarekin. Adar berri horretako bi saio egin ditu familia bakoitzak, eta "gustura" aritu dira denak.

Gurasolandia egitasmoan parte hartzen dute ere 0 eta 2 urte arteko haurrek eta haien familiek. 2020-2021 ikasturterako zortzi saio programatu zituzten Ttakunek eta udalak, eta guztiak egin ahal izan dituzte. Ekintzak, oro har, horrela egiten dira: zertzuk gai landuko diren erabaki eta gero, horietan espezialistak diren adituak gonbidatzen dira herrira, gurasoek horien gaineko formakuntza jaso dezaten. Normalean, tailerrak edo hitzaldiak izaten dira. Antolatzaileek azpimarratu dute "oso arrakastatsua" izan dela familien erantzuna. "Gurasoek asko estimatu dute egitasmoa; haien kezkek plazaratu dituzte, eta ideiak elkarbanatu dituzte parte-hartzaileen artean".



Ekainaren 22an, baratzeko lanak ezagutu zituzten HH5ekoek, Paula Gonzalezekin. Ttakun



Haurrek eta gurasoek ederki pasa zuten baratzeko lanak egiteko saioan. Ttakun



Ekainaren 21ean, HH4koek familiarteko irakurketa saioa egin zuten, Intza Alkainekin. Ttakun



Kultur etxean aurkeztu zuten Trukelandia udalak eta Ttakun KEk. Porrotx eta Josu Txapartegi Txapas izan zituzten laguntzaile. Txintxarri



Haurrek eta gurasoek gogotik gozatu zuten Trukelandiaren aurkezpenean. Txintxarri

# Dominak, markak eta errekorrak metatzen

Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudaire bikain lehiatu da 35. IDM Berlin 2021-World Para Swim World Series proban. Ordiziako Kontrol Marka txapelketan ere 11 marka pertsonal berri dituzte Buruntzaldea IKTKo igerilariak, baita taldeko bi errekor egin ere

## Txintxarri

Buruntzaldea IKTKo igerilariak bi proba garrantzitsu izan dituzte: Nahia Zudairek 35. IDM Berlin 2021-World Para Swim World Series proban parte hartu du eta taldeko gainerako igerilariak, berriz, markak hobetzeko aukera berri izan zuten Kontrol txapelketan

Tokiora begira, igeriketa egokituko proba garrantzitsua jokatu zen Berlinen ekainaren 17tik 20ra, 35. IDM Berlin 2021-World Para Swim World Series proba. Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudairek nazioarteko lehiakideen aurka indarrak neurtu zituen Espainiako Selekzioaren izenean eta lan ederra egin zuen: zazpi urrezko eta zilarrezko domina bat, bost marka pertsonal eta Espainiako hiru errekor berri zituen.

Bederatzi probatan parte hartu zuen eta horietako askotan finalerako sailkatu zen igerilari gaztea.



Nahia Zudaire, 50 metro tximeleta probako podiumean. FEDDF

Ekainaren 17an, 200 m. libre eta 100 m. tximeleta probetan izan zen lehian Zudaire. Bietan finalerako sailkatu eta bere mailako lehen postua eskuratu zuen.

Bular estiloko 100 metroko proba ere egin zuen. Proba honen helburua ez zen lehiatzea, Zudaire

esleitutako maila berrikustea baizik. Hala ere, bere marka hobetu zuen bai proba amaieran, baita 50 metroko pasean ere.

Bigarrenen lehiaketa egunean, 100 m. libre proban finalerako sailkatu ostean, 800 m. libre proba lehen postua eskuratu zuen. 10:26,38

marka egin zuen bere marka minutu erdian ondu eta Espainiako errekorra berrituz.

Arratsaldeko proba libreko finalean ere bere mailako lehena izen zen.

Hirugarren egunean, bere proba nagusia egin zuen gazteak, 400 m. libre proba. Goizeko sailkapen proban bere markatik gertu ibili zen Zudaire. Finalean, berriz, bere marka hobetu zuen ehuneko batzuetan, 5:06, eta Espainiako errekorra ere berritu zuen.

Ondorioz, bere mailako lehena izan zen eta laugarren postua eskuratu zuen sailkapen orokorrean.

Azken egunean, 50 m. tximeleta eta 200 m. lau estilo probetan lehiatu zen.

B finalean lehiatu zen tximeleta estiloko proban eta bere mailako lehena izan zen.

Lau estiloetan, berriz, 2:59,66 marka egin eta absolutu mailako zilarrezko domina, marka pertsonala eta Espainiako errekor berria eskuratu zituen.

Bakarkako probez gain, Nuria Marqués, Sarai Gascon eta Carla Santosekin batera Espainiako laukoan izan zen 4x100 m. Lau estilo proban eta urrezko domina eskuratu zuten.

Buruntzaldea IKTKo Borja Apeztegiak nabarmendu duenez, "Txapelketa bikaina egin du. Bere igeriketarako maila bikaina erakutsi du beste behin ere".

Ordizian izan ziren gainerako igerilariak kontrol marketako proba berrian. Guztira 11 marka pertsonal eta taldeko bi marka berri egin zituzten gazteek.

## Markak ontzen

Unai G. Somovillak 50 m. eta 100 m. libre probetan, 26,97 eta 58,77 eta 100 m. lau estilo proban, 1:05,78, ondu zituen denborak.

Izaro Audikanak 100 m. bular proban 1:24,86 egin zuen ber marka hobetuz.

Garazi Etxeberriak bular estiloko 50 m. eta 100 m. probetan gaintu zuen bere marka 37,03 eta 1:23,04 eginez, hurrenez hurren.

Jon Pelayok ere bular proba motzean, 50 m. proban hobetu zuen bere marka, 39,78.

Iker Gorosteguiak, berriz, hiru probetan berri izan zituen marka: 50 m tximeleta, 33,46; 100 m tximeleta proba, 1:15,66 eta 100 m. lau estilo proba, 1:16,04.

Azkenik, Jurgi Sukunzak 50 m. librean 28,50 egin zuen bere marka hautsiz.

Taldeko bi errekor berriak 17 urteko mailan izan ziren. Aintzane Sarobek eskuratu zituen. 50 m. bizkar proban, 30,81 eta 100 m. lau estilo proban, 1:10,59.

Asteburu honetan, alebin eta infantil mailako Euskadiko txapelketari aurre egin beharko dio Buruntzaldea IKTKo Jurgi Sukunzak, Getxon.

## Bi zilarrezko domina, Espainiako 23 urtez azpiko txapelketan

Naroa Furundarenak jauzi probetan lortu ditu bi dominak. Hurrengo erronka, Espainiako Txapelketa

## Txintxarri

Ekainaren 19an eta 20an, Espainiako 23 urtez azpiko txapelketa lehiatu zen Nerjan, Malagan. Bertan izan zen Ostadar Atletismo saileko Naroa Furundarena eta bi zilarrezko domina ekarri zituen herrira.

Luzera-jauzian eta jauzi hirukoitzeko probetan parte hartu zuen herritarrak.

Luzera-jauziko proba zirrargarria egin zuen Furundarenak, larunbatean.

Bigarren jauzitik argi geratu zen Grupoempleo Pamplona taldeko Laila Lacuey atletak urrezkoa lortuko zuela, 6 metroak

gaintu baitzituen. Baina bigarren eta hirugarren postuak erabakitzeke zeuden.

Furundarena eta Catalunya taldeko Clara Gabaldon bigarren postuarengatik lehian egon ziren lehiaketa osoan zehar. Azken jauzian, gainera, Ezkerraldeko Aida Ruiz ere sartu zen borrokan. Bosgarren jauzian Gabaldonek 5,99 lortu zuen; seigarrenean, Ezkerraldeko Aida Ruizek 5,97.

Beraz, Furundarenak azken jauzian ahalegin guztiak egin behar zituen podiumean egoteko. Ongi egin gainera, 6,00 metrotara jauzia baitzen bere marka pertsonala onduz. Gabaldonek



Furundarena, podiumean. OSTADAR ATLETISMOA

bere azken saiakeran ezin izan zuen marka hori gaintu.

Marka pertsonala eta dominaz gain, marka horrekin maila absolutuko Espainiako txapelketarako gutxienekoa lortu zuen Lasarte-Oriako gazteak.

Igandean, berriz, jauzi hirukoitzeko proban hirugarren postuan egin zuen ia lehiaketa

osoa herritarrak, 12,49 metroko jauziarekin.

Azken jauzian, ordea, Valencia Club Atletismoko Maria Gonzalez aurreratu ahal izan zuen Furundarenak. Lasarteoriatarak 12,79 metroko jauzia egin zuen eta zilarrezko domina eskuratu zuen.

Marka horrekin herritarrak bere marka berrituko zuen; tamalez, markak ez du baliorik. "Haize gehiegi zegoen jauzia egin zuenean", azaldu du Oscar Goikoetxea atletismo saileko arduradunak.

## Emaitzekin pozik

Ostadar Atletismoa saileko kideek lehiaketako irakurketa ona egin dute. "Oso ondo lehiatu da eta bere onena atera du bi probetako azken jauzian".

Gainera, "BATEkin Valladoliden lehiatu zenean min hartu zuen eskuineko orpoan eta oraindik ez da guztiz osatu. Beraz, meritua

du bi domina horiek lortzea", nabarmendu du Goikoetxeak.

Horrez gain, denboraldian zehar egindako lanarekin ere "pozarren" daudela aipatu du.

Ez zen Furundarena 23 urtez azpiko txapelketan parte hartu zuen herritar bakarra izan, Nerea Eugik Atletico San Sebastian taldeko laukoan izan zen 4x100 m. errelebo proban.

## Espainiako txapelketa

23 urtez azpiko txapelketa, Espainiako Txapelketarako aurrekari izan da Furundarena herritarrarentzat. Ekainaren 26an eta 27an, Getafen, Madrilen izango da atleta gaztea, jauzi hirukoitzeko proban. Ez da bakarrik izango bere taldekide Maider Rekondo ere bertan izango baita disko-jaurtiketa proban. Lehen aldia da Ostadar Atletismo sailak maila honetako txapelketan bi atleta sailkatzen dituela.

# Gimnastak, Euskadiko onenen artean lehian

LOKEko hainbat gimnasta lehen hamarren artean sailkatu dira Euskadiko txapelketan; Tolosa taldearekin lehian ari den Aizpea Arroyo herritarrak senior A mailako urrezko domina eskuratu du taldekako txapelketan

## Txintxarri

LOKEko gimnastak eta Tolosako taldean dagoen Aizpea Arroyo herritarrak amateur mailako Euskadiko txapelketa lehiatu zuten ekainaren 19an eta 20an, Durangon.

Larunbatean, ekainaren 19an, senior, zein jubenil mailako gimnastak lehiatu ziren bakarka, zein taldeka.

Senior A mailan, Garazi Gomezek xingola eta pilotarekin lan egin zuen. Xingolarekin egin zuen lan lehenik, eta zazpigarren postua eskuratu zuen; pilota lanean, berriz, bederatzigarren izan zen. Ondorioz, sailkapen orokorrean zazpigarren postuan amaitu zuen lehiaketa LOKEko kideak.

Bestalde, maila horretako taldeen lehiaketan, Aizpea Arroyo herritarrak Tolosa gimnasia elkartearekin parte hartu zuen urrezko domina eskuratu. Bost pilotekin egindako lanak eraman zituen herritarra eta bere taldekideak podiumeko gorenera.

Miriam Prietok eta Maitane Arroyok hamaikagarren eta hamabigarren postuak lortu zituzten, hurrenez hurren, jubenil A mailan.

Prietok ongi egin zion aurre bere lehen Euskadiko



Euskadiko txapelketan parte hartu zuten LOKEko gimnastak eta entrenatzaileak. LOKE GIMNASTIKA

txapelketari. Pilota lanean hamazazpigarren izan ostean, borren lanean ederki kendu zuen arantza eta seigarren postua eskuratu zuen. Arroyo, berriz, pilotarekin hamabigarren izan zen eta mazekin hamargarren.

B mailako lehian, Ambar Rodriguez bosgarren izan zen jubenil mailan. Pilota lanean laugarren sailkatu zen eta borrekin hamargarren postuan amaitu zuen. Eta Paula Martinez senior mailako zazpigarren sailkatu zen. Martinez bai xingola lanean, baita pilota lanean ere, zazpigarren izan zen.

## Harrobia ere ondo

Kadete mailako lehia igandean izan zen.

Erika Tejero eta Iraia Berasartek osatutako bikoteak zazpigarren postua eskuratu zuen. Tejerok borra lana egin zuen eta bederitzigarren postua eskuratu zuen lehian; Berasartek, aldiz, uztai lana egin zuen bederatzigarren sailkatuz.

Hamabosgarren postuan amaitu zuen lehia Aitana Molanok; hamalaugarren izan zen borrekin eta uztaiarekin hamazazpigarren.

Azkenik, Maria Polinak borrekin egin zuen bakarrik lan. Seigarren postuan sailkatu zen lehia horretan.

LOKE taldeak ere izan ziren lehiaketan. LOKE 1 taldeak zortzigarren amaitu zuen lehia eta LOKE 2, aldiz, hamaikagarren.

## Munduko Kopako azken proban, Chourraut zazpigarren izan da

Alemanian lehiatutako proba Tokioko Joko Olinpikoak prestatzeko azkena da herritarrarentzat

## Txintxarri

Maialen Chourraut herritarra Markkleebbergen, Alemanian Munduko Kopako hirugarren proban lehiatu zen ekainaren 17an eta 18an. Tokioko Joko Olinpikoak prestatzeko azken

proba izan da Munduko Kopako eta lasarteoriatarak zazpigarren postuan amaitu du lehia.

Kanporaketari aurre egin zion ostiralean herritarrak. Akatsik gabeko jaitsiera egin zuen eta hamahirugarren denbora

onenarekin hurrengo eguneko final-erdirako sailkatu zen.

Larunbat goizean ostiraleko denbora hobetu zuen eta oraingoan ere hutsik egin gabe, 104,01. Seigarren izan zen.

Guztia ongi zihoala zirudien arren, eguerdiko finalean, kanaleko bigarren zatian arazoak izan zituen herritarrak. 111 segundo eta 05 ehuneko jaitsiera egin zuen eta hiru atetan egindako akatsek sei puntu gehitu zizkion. Ondorioz, zazpigarren postuan amaitu zuen.

## Tourreko Porrako txartelak egiteko azken egunak

Internet bidez txartela egiten duten herritarrek berrikuntzak aurkituko dituzte

## Txintxarri

Frantziako Tourra hastear da. Ekainaren 26a, larunbatekin, izango da, Brest eta Landerneau arteko etaparekin. Britainiatik Parisera, hiru asteko lasterketa izango da eta horrekin batera, Ostadar SKTko porra martxan izango da.

Txartelak egiteko epea ekainaren 22an ireki zen. Ohiko tabernetan, zein online Ostadar SKTren webgunean egin ahal izango dira. Hilaren 26an, larunbata, 21:00etan, bukatuko da boletoak tabernetan entregatzeko epea; igandeko 10:00etan, berriz, on-line egiteko aukera.

## Berrikuntzak

Ostadar SKT jakitera eman duenez, txartelak egiteko hobekuntza batzuk egin ditu porran. Hemendik aurrera, txirrindulari bakoitzaren rankinga eguneratua eta aurrerapena ikusi ahalko dira webgunean. *Ziklisten sailkapena* edo *Txirrindularien zerrenda* sakatuz egin ahalko da kontsulta.

Gainera, elkarteak <https://www.procyclingstats.com/> orrialdera lotutako bi esteka sortu ditu. Batetik etaparen izenean klik eginez, eguneko




sailkapen eta informazio osoa kontsultatu ahal izango da, eta, bestetik, txirrindulariaren gainean klik eginez, haren fitxa teknikoa eta rankinga ikusiko dira.

## Online txartelak

Bestalde, online txartela egitean txartelarekin ordaintzeko arazoak izan dituzten herritarrei ohar bat helarazi nahi die kirol elkarteak.

Ostadar SKT jakitun da, ordainketa arazoak direla medio, herritar batzuk behin baino gehiagotan boleto bera egin dutela. Horregatik, ordainketa ezin bada egin, ez errepikatzeke eskaera egin du. "Saiakera bakoitza erregistratuta geratzen da webgunean. Egin behar dituzuen boletoak lasai egin eta ordainketa arazorik izanez gero, zuekin harremanetan jarriko ginatete", adierazi du porrako antolatzaileak.



LASARTE-ORIA TRAIL

## Mendi lasterketetan topera

Pixkanaka-pixkanaka mendi lasterketak martxan dira. Ekainaren 19an eta 20an, herritarrek Zaldibiko mendi lasterketan eta Atarrabi Trailko Hirumendi proban parte hartu zuten. Larunbatean, ekainaren 19an, Zaldibiko lasterketa egin zuten Joseba Iparraguirre, Asier Mindegia, Josean Lasa, Julen Ormazabal eta Jesus Osuak. Igandean, berriz, Lasarte-Oria traileko Javi Olazagoitia eta Ines Diazek bikote mistoetako hirugarren postua eskuratu zuten Atarrabiako proban. Horiez gain, Peio Fadrique eta Enaitz Ibarburu herritarrak ere izan ziren lasterka.

## ZORION AGURRAK



**Izaro**  
Zorionak artista!! Egun ederra igarotzea opa dizu familiak, maite zaitugu!



**June**  
Oso ondo pasa zure 11. urtebetetzean. Jarraritu horela maitea. Asko maite zaitugu. 11 muxu pottolo familaren partetik.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 25	LASA
LARUNBATA, 26	GIL
IGANDEA, 27	GIL
ASTELEHENA, 28	ACHA-ORBEA
ASTEARTEA, 29	GIL
AZTEAZKENA, 30	URBISTONDO
OSTEGUNA, 1	GANDARIAS-URIBE

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-22:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00


A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93

## URTE OSOKO GUARDIAK APP-A eskuragarri app store edo android marketen


Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) orrialdean eskuragarri.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 25



Larunbata, 26




Igandea, 27




Astelehena, 28




Asteartea, 29



Asteazkena, 30



Osteguna, 1



## OHARRA

## Bigarren eskuko liburuen azoka antolatu dute Oriarte BHIn

Datorren ikasturtera begira, liburuen salerosketarako azoka antolatu du Oriarte institutuak. Ekimenean DBH 3. mailatik 2. Batxilergora artekoak liburuak erosi edo saldu ahalko dira.

Larrekoetxe eraikinean egingo dute ekimena, eta hauek izango dira datak: gaur, ostirala, 16:00etatik 18:00etara, liburuak entregatu beharko dira; ekainaren 28an jarriko dituzte salgai, 16:00etatik 18:00etara; dirua bi egun beranduago bilduko dute, hilaren 30ean, 16:00etatik 17:30era.

Antolatzaileek ohartarazi dute egoera onean egon beharko dutela liburuek: erabilgarri, eta ez apurtuta. Oriartekide guraso elkarteak baloratuko du saltzeko moduan dauden edo ez.

Prezioei dagokienez, hauxe: gaur egun liburu bakoitzak duen prezioaren erdian baloratuko dira, gutxi gorabehera.

Dirua emateko egunean jasotzen ez diren liburuak eta dirua Guraso Elkarteak jasoko ditu, eta aurrez kontrakorik esaten ez bada, haren ondare bilakatuko dira.

Oriartekide jakinarazi du ez duela liburu berririk salduko aurrez; hori egin nahi dutenek Lasarte-Oriako zein Usurbilgo liburu-dendetara joan beharko dute.

## Urrezko ezteiak egin dituzten bazkideen izen-emate epea ireki du Biyak Batek

Biyak Bat egoitzako zuzendaritzak jakinarazi duenez, maiatzaren 15etik irailaren 15era izena eman ahalko dute 2020ean edo 2021ean urrezko ezteiak egin dituzten elkarteko bazkideek. Bazkide-txartela eta familia-liburua erakutsi beharko dituzte inskripzioa egiterakoan.

## Kiroldegan, udako ordutegia martxan

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak jakitera ematen du ekainaren 30etik aurrera udako ordutegia jarriko dela indarrean. Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra arte iraungo du ordutegi horrek. Ordutegia honakoa izango da:

Astelehenetik ostiralera: Kiroldegia: 7:00-13:00 / 16:00-22:00. Igerilekua: 7:00-12:30 / 16:00-21:30. Mitxelin Kirol Gunea: 10:00-12:30 / 17:00-22:00.

Larunbatetan: Kiroldegia eta igerilekua: 9:00-14:00. Mitxelin Kirol Gunea: 9:00-13:00.

Igande eta jai egunetan: Kiroldegia eta igerilekua: 9:00-14:00. Mitxelin Kirol Gunea: Itxita.

## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA

## ERRENTAN EMAN

Garaje marra alokatzen da Golf plazan, Landaberri-Garaikoetxea ikastolaren frentean. Zabala, sarbide erraza, ekonomikoa. Harremanetarako zenbakia, 659 02 19 45.

## LANA

## ESKANTZUA

Zerbitzaria behar da Lasarte-Oriako erdiguneko taberna batean lan egiteko. 666 461 595.

Sukaldari bat behar da Hernaniko enpresa industrial baterako.

Zereginak: bazkariaren prestaketa eta lantokiko garbiketa. Taldeen janari prestaketan aritua izatea baloratuko da. Arduratsua. kotxea beharrezkoa da Berehala hasteko. Interesatuak 628 039 676.

## ESKARIA

18 urteko neska bat naiz. Unibertsitate ikasketak egiten ari naiz, eta lan bila nabil ekainerako eta uztailerako, umeak zaintzen batez ere. Harremanetarako zenbakia, 688 64 38 60.

16 urteko neska bat naiz. Ekainean eta uztailan umeak orduka zainduko

nituzke: txokoetara eramane eta jaso, ikastolako lanak egiten lagundu...

Harremanetarako zenbakia, 640 10 64 40.

Pertsona eskaintzen da pertsona adinduen barneko zaintzaile modura lan egiteko. Orduka ere izan daitezke Erreferentzia onak eta esperientzia du. Harremanetarako zenbakia, 622 747 833.

Pertsona eskaintzen da hainbat zereginetan lan egiteko: sukaldaritza laguntzaile, tabernan pintxoak egin, garbiketa lanak egin, pertsona

adinduak zaindu edo etxeko lanak egin. Asteburuetan ere lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 643 80 37 87.

Pertsona eskaintzen da orduka etxe garbitu edo pertsona adinduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prestutasuna. Harremanetarako zenbakia, 608 93 56 74.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... esperientzia handikoa eta profesionala garbiketetan. Harremanetarako zenbakia, 673 55 62 89.

## SALEROSKETA

## SALDU

CITROEN C3 kotxe berria salgai. Urtebete soilik. 1.000 km egin gabe. Egoera pertsonalagatik saltzen dute. Harremanetarako zenbakia, 687 35 50 95. Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 200 euro. 646 824 466.

Bizikletari lotzeko erremolke doblea salgai. Interesik bazenu deitu

Lasai. Inongo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro. Harremanetarako zenbakia, 670 20 78 14, Amaia.



txintxarri

www.txintxarri.eus

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

## Administraria

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

## Publizitatea

Iratzi Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura, Iñierri Rekondo eta  
Aizpea Amas.

## Banatzaileak

Julene Iraola, Uxue Odriozola, Lide  
Hidalgo, Egoitz Epelde, Erlantz  
Ezeiza, Iker Lanchas, Iñigo Garcia,  
Olatz Bardaji eta Igone Mendizabal.

## Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

## PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

## EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@ttakun.eus

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

## Lege Gordailua: SS-513/33

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.350 ale

BABESLEA :



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA :



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 25

### LASARTE-ORIA Tailerrak

Ttakun KEK haur eta gazteei zuzendutako bost tailer burutuko ditu astean zehar. Saio honetan olinpiadak egingo dituzte. Landaberri Garaikoetxea eraikina, 10:30ean.

### LASARTE-ORIA Sorgin Jaiak

Palestinari buruzko hitzaldia antolatu du Sorgin Jaiak taldeak. Osasun zentroko 2. solairua, 12:00etan.

### LASARTE-ORIA Kontzertua

Lasarte-Oriako Makulu Ken taldeak kontzertua eskainiko du. Afrobeat doinuak entzun ahal izango dituzte bertaraten direnek. Sarrera, 5,50 euro. Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

### LASARTE-ORIA Sorgin Jaiak

Pijama Eguna antolatu du Sorgin Jaiak taldeak, eta *Kuadrillen jaitziera kulturaren alde* ekintza egingo dutela iragarri dute. Isla plaza, 19:00etan.

### ANDOAIN Ikuskizuna

*Piraten istorio bat* haur ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute etxeko txikienek. Keinuen bidezko ikuskizuna da, arina, dibertigarria eta familian gozatzekoa.

Ondarreta ikastetxeko patioa, 12:00etan.

### ANDOAIN Kontzertua

Chill Mafia musika talde nafarrak, euskal kanta tradizionalatik musika beltz, reggeaton edo hip hopera doazen influentziak biltzen dituzte. Doinu horiekin gozaraziko dute ikus-entzulea. Doakoa izango da emanaldia, baina gonbidapenak eskuratzea ezinbestekoa izango da. Ondarreta ikastetxeko patioa, 19:30ean.

### ANDOAIN Kontzertua

Dupla musika taldeak, ikutu elektronikoa zein hip-hop-a nahasten dituen pop musika egiten du, eta emanaldia eskainiko du. Doakoa izango da, baina gonbidapenak eskuratu beharko dira.



**LASARTE-ORIA 'Gure Patxintxiak' sariak** Aurten ez dira San Pedro Jaiak ospatuko, baina hala ere, *Gure Patxintxiak* lehiaketa antolatu dute Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak, 65 urte baino gehiago dituzten herritar maitagarrienak omentzeko. Horretarako, Ttakun KEK martxan izan du hautagaiak aurkeztu eta bozkatzeko epea, eta, guztira, zortzi herritar aurkeztu dituzte; bost emakumezko eta hiru gizonezko. Horietatik guztietatik bana aukeratuko dira, eta horiek omenduko dituzte. Asteartea 29, kultur etxeko hitzaldi aretoa, 12:30ean.

Ondarreta ikastetxeko patioa, 21:30ean.

### ANDOAIN Erakusketa

Xabier Aranburu andoainarrak urak eta denborak zizelkatutako egurrekin egindako artelanen erakusketa ikusteko aukera izango da. Txitibar taberna, egun osoan zehar.

### ANDOAIN Erakusketa

"Juxe" Arteaga Goñik urte luzez jasotako Andoaingo Rock Jaialdiko argazkiekin erakusketa antolatu du. Egitasmoaren helburua da jaialdiaren espirtua azaltzea. Uztailaren 3ra arte ikusgai izango da. Basteroko erakusketa gela, 18:30etik 20:00etara.

### HERNANI Jaialdia

Katapultu Tour Jaialdiaren barruan, musika bakarlariek eta taldeek kontzertu bikoitzak eskainiko dituzte; arteak eta musikak bat eginik, Ramona's First Evil Boyfriend eta Martin de marte arituko dira agertokian. Egundak bakarerrako sarrerak 15 euro, eta hiru egunetarakoak, 30 euro balio ditu.

Chillida Leku museoko lorategietan, 18:30ean.

## LARUNBATA 26

### LASARTE-ORIA Sorgin Jaiak

Elkartasun Eguna antolatu du Sorgin Jaiak taldeak, eta hainbat ekintza iragarri dituzte horretarako:

12:00etan, manifa Okendotik.

14:30ean, tupper bazkaria.

Bazkalostea, bingo musikatua.

Okendo plaza, egunean zehar.

### LASARTE-ORIA Bakarriketak

Nerea Garmendiak eta Santi Rodriguezek bakarriketak eskainiko dituzte. Sarrera, 12 euro.

Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

### HERNANI Jaialdia

Katapultu Tour Jaialdiaren barruan, musika solitek eta taldeek kontzertu bikoitzak eskainiko dituzte; arteak eta musikak bat eginik, Mugan eta Mihise arituko dira agertokian. Egundak bakarerrako sarrerak 15 euro, eta hiru egunetarakoak 30 euro balio ditu. Chillida Leku museoko lorategietan, 18:30ean.

## IGANDEA 27

### LASARTE-ORIA Jotak

Tuterako La Ribera Canta taldeak

## ZINEMA

### ANDOAIN

Igandea: 16:40, 19:10, 21:50.

### BASTERO

#### Operación Camarón

Larunbata: 19:30, 22:00.  
Igandea: 19:30.  
Astelehena: 19:30, 22:00.

#### Ballerina

Astelehena: 12:00.

### USURBIL

#### URBIL

#### El otro guardaespaldas 2

Ostirala: 16:40, 19:10, 21:50.  
Larunbata: 16:40, 19:10, 21:50.

Igandea: 16:40, 19:10, 21:50.

#### Un lugar tranquilo 2

Ostirala: 16:35, 19:05, 21:35.  
Larunbata: 16:35, 19:05, 21:35.  
Igandea: 16:35, 19:05, 21:35.

#### ¡Ups! 2 ¿Y ahora dónde está Noé?

Ostirala: 15:45.  
Larunbata: 15:45.  
Igandea: 15:45.

#### Cruella

Ostirala: 15:40, 18:45, 21:25.  
Larunbata: 15:40, 18:45, 21:25.  
Igandea: 15:40,

18:45, 21:25.

#### En un barrio de Nuevo York

Ostirala: 21:40.  
Larunbata: 21:40.  
Igandea: 21:40.

#### Expediente Warren: Obligado por el demonio

Ostirala: 16:55, 19:40, 22:25.  
Larunbata: 16:55, 19:40, 22:25.  
Igandea: 16:55, 19:40, 22:25.

#### Operación Camarón

Ostirala: 16:20, 18:00, 19:00,

20:40, 21:30.

Larunbata: 16:20, 18:00, 19:00, 20:40, 21:30.  
Igandea: 16:20, 18:00, 19:00, 20:40, 21:30.

#### Raya y el último dragón

Ostirala: 15:55, 18:40.  
Larunbata: 15:55, 18:40.  
Igandea: 15:55, 18:40.

#### Spirit-Indomable

Ostirala: 15:50, 18:10, 20:30.  
Larunbata: 15:50, 18:10, 20:30.  
Igandea: 15:50, 18:10, 20:30.

jota emanaldia eskainiko du. Sarrera, 5,50 euro.

Manuel Lekuona kultur etxea, 12:30etan.

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Sun Magoak *Bat, bi, hiru... magia* ikuskizuna taularatuko du. Sarrera, 3,80 euro.

Manuel Lekuona kultur etxea, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Sorgin Jaiak

Sorgin Egunean kontzertu akustikoa egingo duela iragarri du Sorgin Jaiak. Oriarte BHI Landaberri eraikina, 18:00etan.

### ANDOAIN Dantza emanaldia

Urki Dantza taldeko dantzari txiki eta gazteek Euskal Herriko hainbat dantzaz osatutako emanaldia eskainiko dute. Doakoa da, gonbidapena eskuratzea ezinbestekoa da.

Ondarreta ikastetxeko patioa, 12:00etan.

### GOIZUETA Azoka

Mendialdeko Azoka Ibitaria egingo dute. Eskualdeko produktuen postuak jarriko dituzte.

Herriko plaza, 10:00etan.

## ASTELEHENA 28

### LASARTE-ORIA Bakarriketak

Mikel Bermejo herritarak eta J.J. Vaquerok bakarriketak eskainiko dituzte. Sarrera, 12 euro.

Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

### LASARTE-ORIA Sorgin Jaiak

Sorgin Jaiak taldeak orientazio jolasak egingo dituztela iragarri dute.

Benedika mendi inguruan, 17:30ean.

### ANDOAIN Hitzaldia

Aniztasun afektibo-sexuala eta genero aniztasuna hasiberrirentzat hitzaldia eskainiko du Teresa Castrok.

Bastero kulturunea, 18:30ean.

## ASTEARTEA 29

### LASARTE-ORIA Gure Patxintxiak

Aurten ez dira San Pedro Jaiak ospatuko, ez behintzat ezagutu izan ditugun moduan, baina hala ere, Gure Patxintxiak lehiaketa antolatu dute Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak. 65 urte baino gehiago dituzten herritar maitagarrienak omenduko dituzte.

Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 12:30ean.

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Xilipurdi antzerki taldeak *Salam* lana eskainiko du. Sarrera, 3,80 euro.

Kultur etxea, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Bertso jaialdia

Bertsolariak: Ane Labaka eta Lierni Rekondo herritarak, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Uxue Alberdi. Maddi Labaka herritarra izango da gai-jartzaile lanetan. Sarrera, 5,50 euro.

Manuel Lekuona kultur etxea, 20:00etan.

### LASARTE-ORIA Sorgin Jaiak

Sorgin Jaiak eragilean danborrada egingo dutela iragarri du. Andatza plaza, 18:30ean.

### ZIZURKIL Erakusketa

Naizen elkarteak, *Ez da nire gorputza, zure begirada baizik* erakusketa.

Plazida Otaño liburategia, ekainaren 28ra arte.

*Ondo pasa  
eta zaindu zaitez!*



# ILLARRETA

## ITURGINTZA ETA IGELTSERITZA

### BULEGOA

Geltoki kalea 14 - Lasarte-Oria  
Tel. 606 686 615 eta 943 36 17 52

info@illarreta.com




### TAILERRA

Oialume Bidea, 24 - Astigarraga  
Tel. 943 33 17 54

- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltseritza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen koordinazioa
- Arreta pertsonalizatua

# Urbil app



Ezagutu gure dendetako deskontu guztiak Urbil doako App-ean.



#Urbilover izateak bere abantailak ditu



LASARTE - TOLOSA - ELGOIBAR

# EZ GALDU AUKERARIK UDA HONETAN!

TITANIOZKO INPLANTEETAN  
PROMOZIO BERRIA!

GORA SAN PEDRO JAIAK!

